



BOOKTEGI

FESTA GONBIDATUAK
PARTY GUESTS
KATIXA AGIRRE



BOOKTEGI

Guztion liburuak, guztiontzat

booktegi.eus

KATIXA AGIRRE

festa gonbidatuak
/ party guests

Hitzaurrea / Foreword: Miren Agur Meabe

Edizio hau elebiduna da. Katixa Agirreren ipuinak euskaraz irakurri nahi badituzu, esteka honetan sakatu, mesedez:
[FESTA GONBIDATUAK](#)

This is a bilingual edition. If you wish to read Katixa Agirre's stories in English, please click on this link:

[PARTY GUESTS](#)

FESTA GONBIDATUAK

AURKIBIDEA

Hitzaurrea – Eguneroko bizimoduaren taupada ezkutuak

Hesperia, California

Jaun eta jabe

Igeri egin

Festa gonbidatuak

Hitzaurrea – Eguneroko bizimoduaren taupada ezkutua

Katixa Agirreraren edozein narrazio irakurtzean, jakin-mina eta artegatasuna sentitzen ditut hasieratik. Zer gertatuko ote da? Gertaera handia edo muntabakoa izan, lorratza utziko du protagonistengan, ezen itxurazko normaltasunaren azpian ur-laster isila dabil, bukaera orduko zerbait arrastaka eramango duena errukirik gabe. Ez al zara ohartu gauzak ez direla diruditenak?

Bizimodu baketsu eta ganoraz antolatutakoekin txirikordatuta, zenbat frustrazio, manipulazio, mendekotasun, gezur, irrika, suntsiketa-nahi, nartsizismo, koldarrera, asperdura, zaurgarritasun, gutxitasun-sentimendu, segurtasun falta, lotsa, traizio, autoflagelazio, erresumin, erruduntasun, jelsia, egoismo, obsesio...?

Agirrek gaitasun nabarmena ageri du gizatasuna naturaltasunez eta sakontasun psikologiko eraginkorrez islatzeko. Trebezia sartzen da pertsonaien baitan eta, fikzioa ez dirudien fikzioa eginez, beren ohikotasunean liluragarriak diren pasarte zeharo sinesgarriak eskaintzen dizkigu. Pertsonaien erretratuak eta haien portamoldeen logika deskribatzean, ezkutuko kameraren askatasunarekin jokatzeko du, alde makurrak estali eta baita epaitu gabe ere.

Pertsonaiak etengabe hitz egiten ari dira beren buruarekin; burmuinean kateatzen dituzte elkarrizketak; edo galderen mailukatze itogarria pairatzen dute, une oro bizitzak jartzen dizkien ebaluazio-kontrolak egitera derrigortuak. Giza emozioen tipologia zabalaren laginak ditugu, erlategi urdurietako aleak.

Hala ere, ipuinotan ez dauka tokirik sentimentalismoak. Dramak (osagai dramatiko mamitsuak biltzen baitituzte testuok), 1. pertsonan nahiz 3. pertsonan eman, distantzia galdu gabe azaltzen zaizkigu, kronista neurritsu batek egingo lukeen moduan. Horrenbestez, amaiera sendoek irakurlearen esku uzten dute leitu ahala sorturiko galderei erantzutea. Izan ere, irekitasuna eta anbiguotasuna dira idazlearen berezitasunetako bat, hainbestearainokoa non gogoeta egiteko tartea hartu behar izaten baita hurrengo narrazioari ekin baino lehen. Nola jakin noiz egingo digun iruzur bizitzak?

Idazkerari dagokionez, esan behar erritmo biziko testuak taxutzen dituela Agirrek, esaldi labur eta zehatzen bidez. Narrazioek ia berez egiten dute aurrera, estiloaren inertzia lagun.

Espazio fisikoak eta eszenatokiak —metro koadro gutxi batzuk nahiz milaka kilometro— pertsonaien nortasunaren luzapen legez ikusten ditugu, norberaren inguruabarren salda egosten den lapiko baten antzera. Bestetara esanda, harremanek eta elkarreraginek jarduten duten esparru fisikoa marraztean detaile urri aipatu arren, eraturako atmosferak erakargarriak eta erabat osatuak dira.

Eta han-hemen, ironiaren ukitua, eguneroko bizimoduaren taupada ezkutuei barreka.

Miren Agur Meabe
Bilbon, 2020ko urtarrilean

Hesperia, California

Elkarrekin bidaiatzea dirua aurrezteko modurik onena zen. Horregatik sartu ginen auto batean ia ezezaguna zitzaigun bikote horrekin.

Pentsatzen dut ordurako H. eta nire artekoa makal zebilela, gu konturatu ez arren. Horregatik bilatzen genuen besteen konpainia, kanpoko zaratak barrukoa estaliko zuelakoan. Horregatik sartu ginen auto batean ia ezezaguna zitzaigun bikote horrekin. Konturatu izan bagina, agian nik bakarrik igaro izango nukeen uda hura. Etenalditxo batek zer bait konpontzeko balioko zuen momentua izan zitekeen hura. Summer break. Azken finean hiru hilabeteko kontua baino ez zen, eta lan egiteko nengoen Renoko unibertsitatean. Baina ez, H. ere apuntatu egin zen, bere enpresa izan baitzen krisiaren lehenengo biktimetako bat —krisia hasi eta pare bat urte lehenago, badu meritua.

Marketing mobileko negozio txiki baten jabe zen H., beste bazkide birekin batera: hiru urtez baino ez zuen iraun. Beren lorpenik handiena: Guggenheim museoak enkargatutako sakelako telefonoetarako gida birtual bat, bisitariak bluetooth bidez deskargatuko zutena. Baikortasunez hartu zuen H.-k deskalabru hura, ez zuen ematen bere bizitzako ilusioa komuneko zulotik behera joanda zenik ia egun batetik bestera. Aukera berriak etorriko dira, esaten zuen, eta uda horretan Nevadako unibertsitatean egonaldia egiteko beka lortu nuela esan nionean, Silicon Valley-tik 400 kilometrora zegoen hirian hain zuzen, bere igurikapen baikorrenak betetzen ari zirela sentitu zuen: nirekin etor zitekeen, ingeles ikastaro bat egin unibertsitatean —bere karrerako puntu ahula, beti atsekabetzen zuena—, eta akaso, bailarako enpresei bisitaren bat egin, bere burua aurkeztu, kontaktuak lortu, auskalo.

Zapuztuta gelditu ote nintzen nirekin etorriko zela jakin izan nuenean? Ez dakit, ez nion behintzat neure buruari halakorik aitortu. Gestio guztiak elkarrekin egin genituen, modu azkar eta efizientean. Apartamentu bat, campusetik ez oso urrun. Ingeles ikastaro bat H.-rentzat, garesti demonio suertatu zitzaiguna. Aurkezpen e-mailak elkarrizketatu nahi nituen professor guztiei.

Behin hara ailegatuta, serio hartu nuen neure lana, jet-lagari men egin gabe. Renoko neoiek eta dekadentziak ez ninduten despistatu. Bizikletaz abiatzen ginen unibertsitatara. H. gaztetxo asiarrez betetako ikasgela batean sartzen zen, eta nik liburutegiko aire girotua gozatzen nuen. Rotunda izeneko areto borobila zen nire gogokoena. Bertan, liburuz inguratuta, inoiz amaitzen ez zen caffè latte handi bat eskuetan, eguneko ordurik onenak igarotzen nituen. Askotan, Nevadako zeru beti garbira begira baino ez nintzen geratzen, hamabost minutuz, ordu erdiz. Hamabietarako H. itzultzen zen, eta neure aurrean paratuta, etxerako lanak egiten zituen bazkalordua heldu bitartean. Burua sutan jartzen zidan phrasal verb horiekin guztiekin. Ahalegindu arren ez zuen harrapatzen call off eta put off aditzen arteko diferentzia.

Sandra liburutegiko kafetegian ezagutu nuen, uztailaren 4ko zubiaren ostean. Caffè lattea saltzen zidan nikaraguarrarekin hizketan entzun nion, gaztelaniaz, eta uste dut nik aurkeztu nuela neure burua aurrea. Nazioarteko harremanetarako dekanordea zen Valentziako unibertsitateko Psikologia fakultatean. Ez zegoen bertan ikerketa egiteko, ni bezala, baizik eta Nevada eta Valentziako unibertsitateen artean ikasle trukaketa programa bat aurrera ateratzeko. Sinpatikoezia izan zen lehenengo momentutik eta ni beti mesfidatia naiz horrelako jendearekin. Hala ere, inguru hartan lagun askorik topatzen ez nuen —Euskal Herritik IVEFeko lau morroi txandaldun baino ez zebiltzan campusean bueltaka, auskalo zertan, eta euskal artzainen emazteei buruzko dokumental edo liburu bat egin nahi zuen neska pinpirin bat—, egunero hasi ginen kafea hartzen Sandra eta biok. Elkar ezagutu eta hiru egunetara, H. ere sartu behar izan nuen gure zirkuluan, eta noizean behin —Sandrak gestiorik ez bazuen, edo nik elkarrizketaren bat—, elkarrekin bazkaltzen genuen. Estatuatuarrak eta Espainiako unibertsitate sistema kritikatu betetzen genituen geure solasaldiak, baina lehenengo gaiari beti ematen genion garrantzi handiagoa, H.-rekiko begirunez.

Gure bueltarako dozena bat egun geratzen zirenean, Jorge ailegatu zen, Sandraren senarra, oporralditxo amerikarrak igarotze aldera. Ordurako lotuta eta ondo antolatuta genuen laurok egingo genuen bidaia hura. Autoa alokatuta, San Frantzisko eta Las Vegaseko hotelak erreserbatuta, eta mapa batean marra imajinario bat, imajinazio askorik gabe marraztuta. San Frantziskoraino joango ginen lehenik eta behin, eta handik, 1 errepideari jarraituz, Los Angeleseraino. Los Angelesetik San Diegora joan gintezkeen, baina egun nahikorik ez genuela eta zuzenean Las Vegasera joatera deliberatu ginen —poker jokalaria amorratua omen zen Jorge, Sandrak esan zigunez—, eta handik, barrualdetik, Renora bueltan. Abiatu aurretik, H.-k Silicon Valley-ri aipamen bat edo beste egin zion, baina ez enfasi nahikoarekin, eta azkenean, bisita korporatibo horiek hutsalduz joan ziren, networking hitza sekula berriz ez entzuteraino. Apur bat kezkatuta nengoen Jorgerekin, izan ere, ezertaz ezagutu gabe, berarekin sartu behar genuen auto batean ez dakit zenbat orduz, eta okerragoa zena, lehenengo gauetan hoteleko logela ere konpartitu beharko genuen laurok. Sandraren ideia izan zen hura, San Frantziskoko hoteletako prezioek inspiratuta. Pertsona zuhurra zen, laster ohartuko nintzenez.

Baina ez zen inongo arazorik egon. Ohituta nago presente ez dauden senarrei buruz ezin hobeto hitz egiten duten emakumeetara —altuena, guapoena, azkarrena nirea—. Sandraren deskribapena nahiko zehatza izan zela aitortu behar dut, ordea. Altua zen Jorge, eta nahiko guapoa, eta sinpatikoa ere bai, baina bazekien distantziak mantentzen eta isilik geratzen zenean, bolantearen gainetik zerumugari begira, guztiok errespetatzen genuen. Topiko bikainak erabiltzen bazekien, egoerak hala eskatzen bazuen, baina benetako elkarrizketa interesgarriak izaten ere bai. Abokatua zen farmazia-enpresa handi batean eta etengabe bidaiatzen zuen Suitzara, zentralera. Dagoeneko zekizkien makina bat hizkuntzari txinera ere gehituko zion laster. Bazekien nola tratatu jendea berak nahi zuena lortzeko, supermerkatuko kutxazaina, bere emaztea, baita ni ere, jakina. Hasieratik nabaritu nuen H.-k ez zuela berarengan inpresio handirik eragin. Hala ere, edukazio handiz tratatu zuen bidaia osoan zehar,

eta noizean behin bluetoothari buruzko galderak ere egiten zizkion.

Oroitzapen lausoa daukat egun horietaz. Argazkiak atera genituen, baina ez ditut inoiz begiratzen. Esperantzaren telefono bat gogoratzen dut, Golden Gate zubiko suizidentzat bertan jarria, grazia handia egin zidana. “Jausi egin aurretik, deitu ezazu!”. Inoiz jan ditudan arrautza nahasirik bikainenak ere ondo gogoan ditut: itsaslabarreko jatetxe bat, Pazifiko hotza han behean, arrautzak, ogi txigortua eta kafea. Inoiz dastatu dudan mojitore penagarriena ere ezin ahaztu. San Luis Obispo izeneko hiri unibertsitario batean izan zen, konpromiso hartutako edabea, izugarri nekatuta bainengoen gau hartan. Los Angelesi buruz ez dut ezer gogoratzen: zalantza daukat inoiz autotik jaitsi ote ginen ere.

Bidaiaren azken zatian, Las Vegasetik hiru ordura geunden egun batean, iluntzeak sorpresaz hartu gintuen eta gelditzea erabaki genuen. Mapa eskuetan, Hesperia izeneko hiri bat aukeratu genuen, izenak grazia egin zigulako. Bazegoen handik hurbil Adelanto izeneko beste hiri are tentagarriago bat, baina apur bat desbideratu beharra zegoen, eta Hesperiak gure beharrianak aseko zituela deliberatu genuen. Mojave desertuaren erdian bat-batean loratutako —hitz egiteko modu bat da— hiri bat baino ez zen, gure gida turistikoan bost lerro baino merezi ez zituen. Bitxia zela esango nuke, ordurako hamaika hiri bitxi ikusi izan ez bagenu. Ez zeukan hirigunerik —edo guk ez genuen topatu—, errepidearen alboetan hazitako eraikinak baizik. Hanburgeseriak, likoreriak eta motel ugari: Las Vegasera zihoazen ezkongai, ludopata eta familia obesoentzako propio eraikita.

Ordurako moteletan adituak ginen, eta estandar altuen bila genbiltzan. Behin hiria aukeratuta, zortzi edo bederatzi motel ikuskatu genitzakeen egokienarekin topo egin aurretik. Jacuzzi behar zuten izan, aire girotua eta Interneterako konexioa logeletan, Jorgek beti zuelako lan konturen bat zain bere mezuen artean. Oheak ere probatzen genituen, eta izotz-makinarik ote zuten konprobatu. Hesperian, probatu genuen lehenengo motelak konbentzitu gintuen, ordea. Berritsua zen harrerako neska, gure giltzei buruz baino gehiago bere sorterriaz hitz egiten interesatua. Yucatango Meridakoa zela gogoratzen dut, Sandrak bazituelako doktoregoko ikasle bi hiri horretako unibertsitatean, eta horretaz jardun zutelako minutu pare batez. Azkenean lortu genuen gure logeletarako sarbidea, eta Jorgek jacuzziagatik galdetu zion.

—Atzeko aldean dago, jauna, baina orain ezin da erabili, hamarretatik aurrera, iluntasunagatik, kamerarekin ezin baita bigilantziarik egin —erantzun zuen bere azentu gozoaz—. Seguritate kontuak, jauna.

Gure ateen bila errezepiotik atera ginenean, Jorgeri etsipenez esan nion:

—Ezer ez galdetzea hobe, beti da hobe barkamena eskatzea baimena eskatzea baino.

—Zer diozu? —erantzun zidan berak—. Behar genuen informazioa eman digu: orain badakigu

ez gaituela inork molestaturko jacuzzian gauden bitartean.

Arrazoa zuela onartu behar izan nuen. Ohitzen hasia nintzen. Autoan gizonak aurrean esertzen baziren ere, eta emakumeok atzeko partean, nabaritzen hasita nengoen Jorge eta bion artean afinitate berezi bat sortzen ari zela. Jorge eta H.-ren artekoa baino askoz handiagoa, eta Sandra eta bion artekoa baino askoz handiagoa. Gauza asko nituen komunean Sandrarekin —lanbidea, familia istorio antzekoa, are Damien Rice-kiko zaletasun ia patologikoa ere—, eta hala ere, klik egin gabe jarraitzen genuen, arrazoi irakurtezina tarteko. San Frantziskoko lehenengo gauean, logela konpartitu genuen lehenengo gau hartan, bere adinari buruz gezurra esaten zebilela deskubritu nuen gainera. Berezi grabea iruditu zitzaidan hori, bi aste lehenago bere urtebetetze ospatu baikenuen Renoko pizzeriarik onenean, eta piper zatiak erabiliz, bere adin faltsua konposatu nuen nik tomate saltsaren gainean, kandelarik ez genuelako.

Gauza da San Frantziskoko hotelean geundelarik pasaporte bat ikusi nuela mahai gainean. Nirea izango zelakoan zabaldu nuen, baina, horren orde, Sandraren aurpegiarekin egin nuen topo. Ez zen ni baino bost urte zaharragoa, beti gogorazten zidan moduan, zazpi urte baizik. Gezurretan arituz gero fundamentuz egin beharra dagoela iruditzen zait niri, bi urterengatik ez duela merezi. Baina plan bat izango zuela pentsatu nuen gero: beste askok egiten duten moduan, berak ere, adin batetik aurrera, urtebetetze bakoitzeko urte bat kentzea erabaki zuela, gehitu beharrean. Hurrengo udan, lau urteko diferentzia izango zuen nirekin, seguru.

Ez nion inori esan —H.-ri, esan nahi baita—, baina plazer txikiz gogoratzen nuen nire deskubrimendutxoak Sandrak adinarekin zerikusia zuen edozer esaten zuen bakoitzean (eta arraioa, etengabe zerabilen gai hura ahotan), noizbait umeak izan nahi zituela gogorazten zigun bakoitzean adibidez (noizbait?, baina noiz, demontre?, galdetzen nion nik neure buruari, bost urte gutxiago betetzen dituzunean?).

Erlaxatuta afaldu genuen Hesperia-ko jatetxerik onenetako batean —Big Boy, zeinen espezialitatea bi pisuko hanburgesa baitzen—, baina afalondoa ez genuen gehiegi luzatu nahi izan, denok baikenuen jacuzia buruan. Bidaiako momenturik goxoenak —H.-ren lekuz kanpoko iruzkinak iruzkin— bertan pasatuak genituen ordura arte. Izarren pean, burbuila beroen arrimuan.

—Bost minutu barru jacuzzian!

Korrika abiatu ginen logeletara, bainujantziak autoaren atzeko bandejatik jaso eta gero. Han uzten genituen goizeko bainuaren ostean —erritual hori ere bagenuen—, errepedeko eguzkiak lehor zitzan. Lau minuturen buruan, berriz batu ginen SPA-GUESTS ONLY zioen kartelaren pean toalla zuria gerrian. Gaua zenez, ez genuen hesirik harago zabaltzen zen orube tristea ikusi eta glamour ilusioa mantendu ahal izan genuen uretan sartu bitartean. Krisketa ireki zuen Jorgek arazorik gabe, eta jacuzia eta igerilekua inguratzen zuen hesia zeharkatu genuen,

klandestinitatea agerian utziz gure pauso arin eta nerbiosoekin.

—Gaur askatasun osoz jokatu dezakegu, lagunok! —esan zuen H.-k, ipurdian atximur egiten zidan bitartean—. Badakigu ez dugula youtuben amaituko, kamara ez dabil!

Sandrak eta Jorgek komentarioa entzun ez izanaren plantak egin zituzten dotorezia handiz eta minutu batez, burbuilak baino ez ziren entzun, eta gure gorputzen baretzea. Kaliforniako gaueko aire freskoak aurpegietan egiten zigun kilima, gorputzak berotzen zitzaizkigun bitartean.

—Badakizue zer dugun faltan hemen, ezta? —esan zuen Jorgek orduan.

—Whiskia, noski! —erantzun zuen Sandrak, ondo konpenetratutako bikotekidearen papera jokatuz.

—Bai, eta nor aterako da paradisu honetatik, whiskiaren bila joateko? —esan nuen nik konfiantzarik gabe.

—Ni joango naiz —eta zutik jarri zen H., bere bainujantzi loredua audientzia osoari erakutsiz—. Errepidea gurutzatu eta hantxe bertan dago likore-denda bat.

—Zurekin joango naiz —esan zuen Jorgek, azken finean ideia originalaren egilea.

Kamisetak jantzi zituzten eta bainujantziak blai eginda atera ziren hesiaren bestaldera. Bakarrik geratu ginen Sandra eta biok, isilpean.

—Ondo konpontzen direla ematen du, ezta? —saiatu nintzen ni orduan, galtzen ziren bi silueta bustiei begira.

—Bai. Aizu, ni izotzen bila noa, dena prest izateko.

Eta berak ere utzi zuen bake eta bapore tenplu hura. Zimeltzen hasiak ziren nire hatz-mamiei begira gelditu nintzen bost minutuz, burua husten saiatuz. Sandra itzuli zen aurrena, logeletan beti aurkitzen genituen plastikozko kubo horietako bat izotzez beteta. Izotz puxka horietako bat hartu nuen eta ahoan sartu. Berehala itzuli ziren gizonak, zalapartaka.

—Ladies, zuen eskaria hemen da —esan zuen H.-k.

—Kostatu egin zaigu, baina azkenean lortu egin dugu! —erantsi zuen Jorgek.

—Yankee vietnamdar zoroa... —esan zuen H.-k jacuzzian hanka bat sartzen zuen bitartean.

Jorge bitartean edaria banatzen hasi zen. H. eta bion edalontziak, on the rocks. Besteak, izotzik gabe. Ordurako ez zegoen galdetu beharrik.

—Fijatu zara nola gordetzen zituen eskuak mostradorearen azpian, eskopeta ateratzeko prest?

—Niri beldur handiagoa eman didate txori horiek guztiek, karioletan. Seguru entrenatuta dituela bezeroei begiak ateratzeko.

—Zenbat izango zituen han? Eta usain hura!

Renoko kasinoetatik bi hilabetez paseatu ostean, edozein motatako pertsonaiekin ohituta nongoen. Oxigeno botilei lotuta makinetan jokoan zebiltzan jubilatua, bibote daliarra listuarekin apaintzen zuten homeless ilegorriak, autoekin lehian lasterketak egiten zituzten paralitikoak, mila dolarreko billete faltsuak banatzen salbazioa iragartzen zuten iluminatuak. Nekagarria egiten zitzaidan antropologia ariketa iraunkor hura. Gaueko ordu horietan trago bat baino ez nuen nahi, mundutik atera, nire burua baino ez aintzat hartu. Nire edalontzia atrapatu nuen eta topa egin gabe bota nuen lehenengo zangada.

—God save America! —esan zuen Jorgek.

—God save America! —esan genuen guztiok.

—Eureka! —gehitu zuen H.-k, gidan irakurrita baitzuen hori zela Kaliforniako eslogana.

Bakoitza bere basoan kontzentratu zen, eta gogoratzen dudanaren arabera ez zen hitz handirik egon hurrengo minutuetan. Bigarren erronda etorri zen, eta agian hirugarrena ere bai. Logura sentitzen hasi nintzen, eta zorientasunaren antza izan zezakeen zerbait. Izarrak ikuskatzen saiatu nintzen, lepoa atzerantz bihurrituz, eta justu orduan norbaitek ezkerreko oinean fereka egiten zidala sentitu nuen. Luze. Astiro. Eserita geunden tokitik edozein izan zitekeen, baina H.-rentzat postura bortxatu samar bat izango litzateke eta ez zeukan lizunkerietan ibiltzen zeneko babo aurpegi hura. Oina kendu beharrean, egoera luzatzea pentsatu nuen, ferekaren egilea deskubritu nahian.

Silueta beltz bat gerturatzen zela sentitu genuen orduan, baina beranduegi, egoeraz ohartu ginenerako, zabalik utzitako atea zeharkatzen ari baitzen gorputz handi bat. Seguritate guarda bat, pentsatu genuen guztiok ziurrenik, ez baitzen lehen aldia gure bainuen erdian morroi uniformedunen bat agertzen zela. Baina honek ez zeukan uniformerik: bermudak, txankletak eta tirantedun kamiseta bat baizik, tatuajez beteriko besoak ikusgai uzten zituena. H. eta Jorge tente jarri ziren aldi berean. Nire oina ferekatzen zuen oina bat-batean erretiratu zen.

—Likore-dendako tipoa... —esan zuen H.-k.

—Hi, guys! —esan zuen likore-dendako tipoak, eta kamiseta kentzeari ekin zion.

Bere bular txuri eta tatuatuarekin topo ez egiteko jaitsi nuen begirada eta mozoloaren oinetara jo nuen: apur bat gorago, ezkerreko orkatilan, lokalizadore bat deskubritu nion. Seinale bat bidaltzen ari zen momentu hartan Hesperiaiko polizia-etxera? Sheriff bat agertuko zitzaigun koadro kostunbrista hura behin-betiko osatzeko?

Bermudetan, txitxiak dardaran, likore-dendako tipoak kaska soildua harramazkatzen zuen, bere hurrengo mugimenduen nondik norakoa erabaki ezinik. Jacuzziak lau lagunok lasai samar geunden hala ere, gure gorputzekin bainuontzi horren edukiera betetzen baikenuen. Agerikoa behar zuen hor ez zegoela bosgarren gorputz baterako tokirik, sistemaren azpiproduktu horrek ere ikusi beharko zuen. Gainera, ateko kartelak ongi baino hobeto azaltzen zuen “spa”ren erabilera moteleko bezeroentzat erreserbatuta zegoela.

Baina azpiproduktua gugana ari zen gerturatzen.

—Having fun?

Ez genion erantzun. Geure artean elkarrizketa telepatiko bat izaten saiatu ginen. Zerbait esan beharko genion? Handik ziztu bizian atera? Lekutxo bat egin ipurdi vietnamdar horri?

—Sartu nahi du —esan zuen orduan Sandrak, agerikoa zena guztiekin konpartitu nahian.

—Zer egingo dugu? —nik.

—Txoriekin ez datorren bitartean, nigatik ondo —esan zuen H.-k erdi irribarre batez, baina inori ez zion graziarik egin.

Ez genuen ezer egin, hanka bigilatu horri begira gelditu besterik ez: behatz puntak, orkatila, ilerik gabeko hanka, bermuda zaharrak. Paralizaturik geunden, eta jacuzziak gurekin bat egitea erabaki zuen, bere burbuila-jarduna momentu hartan eten baitzen. Bost minutuz behin gertatzen zen, eta botoiari sakatu beharra zegoen orduan. Tatuaiadunak berak egin zuen, bere ezkerreko oinarekin. Botoia nire sorbaldaren atzean zegoen, eta burua biratu nuenean, bere azazkal beltzak ikusi nituen. Segundo bat geroago, oin hura uretan zen, Sandra eta nire sorbalden artean. Portuetako ur koipetsuetan janari bila ibili ohi diren arrain ilun horietako bat ematen zuen.

—Aizu! —esan zion orduan Jorgek, bularra ateraz, baina tipoak jarraitu zuen uraren tenperatura probatzen, ez-axolati.

Senak esaten zidan, eta Sandrari ere antzeko zerbait esango zion, alboratu beharra genuela, jacuzzitik atera, korrika egin. Eta hala ere han jarraitzen genuen, oin zikin batek gure arteko ura irauli eta belzten zuen bitartean, ezer egin gabe. Instintuari kasu egin beharrean, gizonezkoen erreakzioaren zain gelditu ginen. Baina haiek ere instintuari gor nonbait. Morroskoak ondo aprobetxatu zuen egoera: oin bat sartu —baina zer gertatzen zen lokalizadore hori bustitzen bazen?—, eta ezer gertatzen ez zenez, bestea ere sartu zuen. Begirada erretiratu nuen, okerrena imajinatu bainuen bere bermuden pean. Mugimendu bakar batez bere ipurdiari tokia egin zion Sandra eta bion ipurdien artean. Azalak azala ukitzen zuen, lodiagoa ematen zuen gizonak uretan, bermuden azpian jaurtitzeko prestatzen ari zen torpedo bat imajinatu nuen.

Kontakizun baten bitartez ezin da azaldu zeinen azkar pasatu zen dena, hitzek nahitaez moteltzen dute gertatutakoa, baina bat-batekotasun horrek bakarrik argitu dezake nolatan ez ginen mugitu, ez genuen ezer egin. Likore-dendako tipoaren ipurdiari lekua egiteko, ni H.-rengana gerturatua nintzen, eta Sandra Jorgerengana, naturala den moduan. Eta hala ere, morroskoak gauzarik nazkagarriena egiteko adorea bildu zuen: bere mingain zuria atera —zin dagit zuria zela—, eta nire azalaren gainean lepotik belarrirako bidea egin zuen, miazkatzen zidan azal zati hori izoztuta utziz.

—Aizu! —esan zuen orduan H.-k, bularra Jorgek bezala ateraz, eta bere besoa jarri zuen nire sorbalden gainean.

Nik ez dakit “joder” edo “putakumea” zer esan nuen, baina azpiproduktuak ez zuen gaizki hartu, beste alderantz egin baitzuen orduan, Sandrarekin prozesu bera errepikatzeko. Ez dakit bere mingain lodiak Sandraren azala ukitzera ailegatu ote zen. Oso gertu egon zela bai, baina justu orduan Jorge jausi zitzaion gainean, itsaso-munstro baten trinkotasunarekin. Estrategiarik gabe bere pisu guztia morroskoaren kontra bota zuen, baina berehala erabaki bat hartu, eta beso batez gizonkotearen lepoa inguratzen zuen bitartean, beste eskuarekin haren burua urperatzen saiatu zen. Bitartean, Sandra, H. eta hirurok jacuzziaren izkina urrunenean geratu ginen, edo behintzat irudi hori daukat buruan, jakin badakidan arren ontzi txiki hartan ez zegoela izkina urrutirik, izkinarik ere ez zuelako, besteak beste. Denok geunden gertu-gertu, gorputzen zopa nahasi bat zen hura, baina Jorge ari zen indarra egiten, eta likore-dendako tipoa ura edaten.

Itotzen ari zen, berehala konturatu ginen. Jorgek, modu kontzientean, morroskoa ito nahi zuen. Indar guztia helburu horretan jarrita zuen. Kopetako zainak puztuta zituen eta sekulako ahaleginak egiten zituen buru vietnamdar horrek berriz airerik hartu ez zezan. Noizean behin, burua ateratzea lortzen zuen gizonkoteak, ukabilkadak ematen zituen, ostikoren bat edo beste ere jaso nuen nik, uraren azpian. Jorgek ez zuen amore ematen ordea. Beherantz indarra egiten jarraitzen zuen, indarrak auskalo nondik ateraz. Halako batean burbuilak amaitu ziren berriz ere, eta lasaitasun berri horrek makurragoa, zitalagoa bihurtu zuen eszena osoa. Burura,

Mojaveko desertua zetorkidan, pala bi, egunsentiraino luzatzen den enterramendu bat. Zinemari esker, erabat sinesgarria eta egingarria iruditzen zitzaidan pasadizoa. Ez ninduen izutu.

—Nahikoa da, Jorge! —egin zuen txilio Sandrak, inoiz entzundako ahotsik zorrotzenarekin.

Atzera egin zuen gizonak orduan, otzan, esku artean zuena zaku baten moduan jaurtiz, mespretxuz. Gizonkotearen burua uretatik bere kabuz aterako ote zen gelditu ginen guztiak. Atera egin zuen. Eztula egin zuen. Zutik jarri zen jacuzziaren erdian, eta orduan denok atera ginen uretatik. Jorgek tipoaren kamiseta eta txanklak hartu zituen eta hesiaz bestaldera jaurti zituen. Eztula gehiago. Zorabio imintzioak.

—Go away! —esan zuen Jorgek oraindik berea ez zen ahots batez.

Pauso baldarrez atera zen bera azkenean. Tu egin zuen hiru edo lau aldiz irteerarantz jotzen zuen bitartean. Botaka egingo zuela pentsatu nuen nik, aztarna hori utziko zigula.

—Pasatu egin zara —esan zion Sandrak Jorgeri, zeinek gazteagoa eta biziberritua ematen baitzuen.

Sandrak negarrari ekin zion orduan, ez dakit zergatik. Besarkatu egin ziren begiratzea ia lotsa ematen zuen modu batez. Nik azpiproduktuaren lerdea garbitzen saiatzen nintzen nire toallarekin, baina banekien bertan sentituko nuela bolada batez. H.-k burua harramazkatzen zuen, eta txistuka egiten zuen, ez dakit arinduaz edo adrenalinarekin poderioz.

—Goazen hemendik —esan zuen Jorgek—. Lo egiteko ordua da.

Berehalakoan egin genuen men guztiok.

Gaua oso txarto pasa nuen. Ziur nengoen edozein momentutan tipoa itzuliko zela. Eta ez zen noski bakarrik itzuliko. Eskopeta, mostradore azpian gordetzen zuen eskopeta hori, berarekin ekarriko zuen. Gu guztiak hil ondoren bere txoriak askatuko zituen, geure hondakinekin elika zitezten. Edo akaso gu akabatu aurretik. Ate aurrean jarri nuen sofa, eta baita telebistaren altzaria ere. H. ados egon zen, ez zidan barrerik egin. Sekulako amorrua sentitu nuen, goizeko hirurak aldera, H. lokartu zela sentitzerakoan. Nik ez nuen lorik hartu goizaldera arte. Halako batean, likore-dendako morroskoarengan pentsatzeari utzi nion, baina edozein motatako pentsamendu ilunak etorri zitzaizkidan ametsetan: errepide-istripuak, katastrofe naturalak, bakardadea.

Ohi baino lehenago gosaldu genuen egun hartan, eta ez genuen goizeko bainurik hartu. Hiru orduren buruan Las Vegasen ginen, eta pare bat egunetan ez genion elkarri hitzik egin behar

izan: argiak, pantailak, kasino mahaien artean biluzten ziren neskak eta bekatarien kontra aritzen ziren salbatzaileen artean, haluzinatuta eman genituen ordu guztiak. Egun horietan banatu ginen lehenengo aldiz. Jorgek pokerrean kontzentratu nahi zuen; eta guk hirurok, turismo hutsa egin.

Egun bakar batean itzuli ginen Renora, Jorge eta Sandraren hegaldirako zortzi ordu eskas gelditzen zirenean. Espektatiba eta promesa faltsurik gabe esan genien agur, baina izugarri ondo pasatu genuela elkarri esanez.

Bost hilabete geroago, Gabonen ostean, H. eta biok banandu egin ginen. Bera joan zen anaia baten etxera, eta etxea salgai jarri genuen arren, ni gelditu nintzen bertan eroslea agertu bitartean, fakultatetik gertu geratzen zelako. H. kalitate ikastaro batean eman zuen izena. Pasiarik gabeko banaketa bat izan zen, kontatzen ere aspergarri suertatzen den horietako bat. Handik hilabete batzuetara, udako egun likitsu batez, apartamentu berrian telefonoa jarri zidaten egun berean, ez dakit nola gogoratu nuen Sandraren urtebetetzea zela. Pizza hura etorri zitzaidan gogora, eta piperrekin osatutako adin faltsua. Kuriositatea nuen. Gehiegi pentsatu gabe deitu nion etxera. Sandrak beharrean, Jorgek erantzun zion telefonoari, abegitsu erantzun ere. Hiru-lau hitz elkar trukatu ostean, Sandrarekin hitz egin nahi nuela esan nion, zoriondu nahi nuela. Sandra ez zela jada bertan bizi esan zidan, tonua erabat ilunduz. Auskalo zergatik, entzundakoak ez ninduen batere harritu.

—O —esan nuen, hala ere.

Ez nuenez sarkin bat izan nahi, ezer galdetu beharrean (baina zer gertatu da?, hain bikote ederra egiten zenuten!), nire istorioa kontatu nion, kointzidentzia azpimarratuz, detaile interesgarrienak bildu nahian, eta Jorgek sentitzen zuela esan zidan dena entzun ostean. Baina berak ez zidan ezer kontatu.

—Tira, gauza hauek gertatzen dira.

—Bai, gertatzen dira.

—Aizu, beste egunen batean deituko dizut eta lasaiago hitz egingo dugu, ados?

Ados, esan zidan, modu neutroan. Eta eskegi aurretik zenbat egunez itxaron beharko nukeen kalkulatzeko hasi nintzen, nire hurrengo deia oso arraroa suerta ez zedin.

Jaun eta jabe

Ezuste eta deserosotasunak gorabehera, ez zitzairen etxe berrira ohitzea larregi kostatu. Arrotza zitzairen, bai, kanpoko isiltasuna, gauez tinpanoak urratzen zituen huts hura; arrotza, halaber, etxearen beraren noizean behingo soinu erreperitorioa: habeen kraska, zoruen kirrinka, tximinian behera zetozen haize-uluak.

Arazo teknikoak ere ez ziren makalak izan: kalefakzio sistema berria ez zebilen behar bezala (lagun batek aholkaturiko erradiadoreen purgazioek ezer gutxirako balio izan zuten), eta, azaroaren hasieratik, estufa elektriko txiki bat sartu behar izan zuten logelan. Arratoi inbasio nazkagarri bati egin behar izan zioten aurre, tranpa itsaskor (eta krudel) batzuen bitartez. Bainugelan, kainerien konexioa gaizki eginda zegoen nonbait, eta mando gorria erabili behar zen ur hotza lortzeko, eta urdina beroa izateko. Goiz askotan bitxikeria hura ahaztu eta denbora puska bat pasatzen zuten zorrotada hotzaren azpian, madarikazioka.

Eta hala ere, pozik zeuden, aldaketaz kontent. Hala esaten zioten elkarri. Benetako etxe baten jabe ziren, Goiok lanerako toki aparta zeukan, Garazik ordu erdi eskaseko auto bidaia lantokiraino. Mauka eder hura topatu izanaren zortea txalotzen zuten. Garazik sei urte inguru zeramatzan pisu babestuen zozketetan parte hartzen. Bere izena, beste milaka izenen zerrenda batean. Hogeita zazpi urte baino gutxiagoko kupoan hasieran, hogeita zazpi baino gehiagokoetan gero (halabeharrez). Azkenean, egunkarian iragarki txiki bat ikusi eta urte luzez izozturiko afera martxan jarri zen supituki, abiadura bizian jarri ere.

Etxearen jabeak, estutasun ekonomikoak tarteko –gaizki ateratako negozio bat, nonbait–, presa zeukan heredatutako etxe zahar hura saltzeko. Hamar urtez abandonatuta izan zuen, baina ezinbestekoa zitzaion orain etxea saltzea. Horregatik zen prezioa hain baxua, azaldu zien Goio eta Garaziri, urgentziagatik.

Inoiz ez zitzairen, ordura arte, hiritik kanpo bizitzea burutik pasa. Garaziri, babes ofizialeko pisu baten zain zegoenean ere, kezka eragiten zion auzo berri horien periferikotasunak, ezerezaren erdigunean egote bakandu horrek. Eta orain, auskalo nondik nora, herri ezin apartatuago batera joan ala ez erabakitzen ari ziren.

Ordura arte sekula entzun gabeko herria zen, mapetan kostata topatzen zena, ezdeusa, beste garai batekoa. Internet bidez bilatu behar izan zituzten hara ailegatzeko argibideak. Muino baten gainean zegoen eta, bere punta altuenetik ere, gari soroak eta eskualde-errepide bat baino ez ziren ikusten. Errepidearen bestaldean, txalet adosatuen urbanizazio berri bat ere ikus zitekeen. Hori zen gizateriaren aztarna bakarra, eta horrek lasaitu zituen herrira gerturatu ziren lehenengo aldian.

Alde onei erreparatu zieten. Etxe hura benetako etxe bat zen, sobera espazioduna, naturaz

inguratua, benetako historia baten jabe. Lasaia (oso). Bakartia ere bai, baina festak antola zitezkeen, nahi adina, udaltzaingoari deituko zioten bizilagunen arriskurik gabe. Aire purua izango zuten eskura etengabe. Prezioarena ez zen nolana hiko abantaila. Eta, noski, umeak izatekotan ere, leku bikaina huraxe, ezta?

Lagun arkitekto batekin bisitatu zuten etxea bigarren aldian. Hark etxearen egoera onesgarria ziurtatu zien. Azkar eta erraz egin zitezkeen konponketa eta berrikuntza simple batzuk azaldu zizkien. Teilatuan atonketak. Leihoen isolamendua. Kalefakziorako instalazio berria. Eta ez, beheko pisuko bi gelatxoak banatzen zituena ez zen karga horma bat, eta hura botaz saloi handi samarra geratuko zitzaien (festetarako-eta).

Hurbileko urbanizaziora jaitsi ziren gero, tabernan zeuden bezeroen artean informazio pilaketa egiten saiatzera: herria, bizilagunak, komunikazioak. Herrixka 70eko hamarkadan hasi zen husten, ia-ia desagertzeraino, inguruko herri gehienek pairatutako patu bera. Familia bakarra gelditzen zen orain modu iraunkorrean bertan bizitzen. Baina (eta hor zegoen herrirako esperantza bakarra) hiriko jendea hasia zen etxeak erosten, berritzen, asteburuetan umez betetzen. Udan ere, mugimendu dezente zegoen, eta ez bakarrik asteburuetan. Gainera, urtebete zen telekomunikazioak hobetzeko administrazioaren plan bati esker posible zela herrian ADSL konexioa izatea. Herrira zeraman pista estua berriki asfaltatua zen, urtebete ere ez zen izango. Tabernarik ez zegoen, baina urbanizazioko tabernan bazegoen girotxoa, eta ongi etorriak izango ziren bertan.

Handik pare bat egunetara, etxeko jabeak presa sartu zien. Garazik beren zalantzak azaldu zizkion, denbora eskatu zion. Prezio merkeago bat proposatu zion orduan jabeak. Beherapen adierazgarria. Pasatzen utziko zuten horrelako aukera bat?

Hilabete batzuk pasa ziren hirian alokairuan zeukaten pisua utzi eta herrira mugitu zirenerako. Lan mordoa egin behar zen etxea bizigarri bilakatu arte (hasieran, baikortasunez, aurreikusia baino askoz gehiago). Asteburuak baliatu zituzten, baita oporrak ere. Engainatu ahal izan zituzten lagun guztiak bertan izan ziren, teilatu gainean, edo etxe barruan, leiho eta ate markoetan burleta ipintzen, hormak margotzen. Gaez, beren pisu alokatura bueltatzen zirenean, txikia eta itogarria egiten zitzairen, eta handik alde egiteko gogoak gainezka egiten zien.

Azkenean, irailaren bukaera aldera, mudantza definitiboa egin zuten. Garazik bi egun libre hartu zituen. Lagun batek utzitako furgonetan pisu alokatuan zeuzkaten altzari apurrak sartu eta agur esan zioten hiriari. Dena garbitu behar izan zuten. Zoruak, eskailerak, eskailera-azpia, bainugelak, ataria, oharkabean pasatako hamaika izkina eta txoko ilun. Altzariak kokatu zituzten. Gela bakar batean sartzen ziren guztiak. Altzari berriak erosi beharko zituzten, hutsuneak betetzeko. Estilo tradizionalago bat proposatu zuen Garazik, nekazal inguru berrira

hobeto egokitzeko. Burdina forjatuko ohe bat logelarako, esaterako. Eta, zergatik ez, Garaziren amaren etxean gordetzen zuten komoda zahar hura, umeen gelarako.

Ez zen umeen gela delakoa aipatzen zuen lehenengo aldia. Bromatan bazen ere, beren logelaren ondoan zegoen gela txikiagoa aipatzen zuen bakoitzean, horrela deitzen zuen.

Eta ze kolorez pintatuko ditugu umeen gelako paretak?

Kutxa horiek, momentuz, umeen gelan gera daitezke.

Goiok ez zekien kezkatzen hasteko ordua ote zen.

Bere ustez, kontua nahiko argi zegoen.

Arkitekto baten bulegoko bere lana (maketa birtualen diseinuaz arduratzen zen) utzi berri zuen, printzipioz urtebeteko eszedentziaz, baina tarte hura bukatutakoan lanera bueltatuko zela imajinatze hutsa ezinezkoa egiten zitzaion. Saiatu ere, ez zen asko saiatzen. Orain, gainera, etxearen eta hipotekaren esklabotza zeukaten (Garaziren nominagatik lortua, noski) eta ume batek gehiegi konplikatu luke guztia. Garaziren hitzei muzin egitea erabaki zuen Goiok. Oraindik luzamendutan ibiltzeko aukerak bazituela iruditu zitzaion. Buruhauste nagusia etxea guztiz txukuntzea zen. Horrekin entretenimendua izan zezakeen Garazik bolara baterako.

Zoriontsu zegoen etxeko jauna egoitza berrian. Goizetan, batez ere. Batera gosaltzen zuten Garazik eta biek, baina gero, emakumeak autoa hartu eta alde egiten zuenerako, isiltasuna baino ez zen geratzen inguru osoan. Ganbarara igotzen zen orduan eta, ordenagailua pizten zen bitartean, lehenengo zigarroa erre ohi zuen leihoan.

Momentu hoberena zen hura: eguna probetxugarria izango zitzaion esperantza mantendu zezakeen oraindik. Urtebeteko beka lortua zuen, baina hain luze begitandu zitzaion urtebete hura zortzi hilabetetan geratua zen azkar batean, eta denborak gupidagabe aurrera egiten jarraituko zuen sentipena zeukan Goiok. Emaitzak behar zituen, aspalditik. Eta dena erritmo egokiz martxan jarriko zen momentuaren zain bizi zen.

Kea botatzearekin batera etxe aurreko aranondoari erreparatzen zion: aranak, helduegiak, berez erortzen ziren, eta txoriek, pare bat mokoka dedikatu ostean, bertan abandonatzen zituzten. Herriko kale bakarra erdialderantz zabaltzen zen, eliza zegoen tokian, baina bidezidor bihurtzera ailegatzen zen gorantz egin ahala, kanposantuan bukatzeraino. Noizbait kanposantua bisitatzera joan behar zuela gogoratu zion bere buruari Goiok. Gero, herriko biztanle bakarrak izandakoen etxera begiratu zuen.

Bizilagunen arteko harremanaren kalitatea beren etxeak banatzen duen distantziarekiko proportzionala bada, Goiok harreman baketsu eta atsegin samarra aurreikusten zuen, etxe bakoitza herriko mutur batean baitzegoen. Eskualdeerrepidetik pista asfaltatu berria hartuz eta bi kilometro gorantz eginez, herria agertzen zen, eta topatzen zenuen lehenengo etxea bizilagunena zen. Etxe izugarria zen, armarri eta guzti, baina leihoen erdia-edo egurrez estalita zituen. Baratze txukun bat ere bazuen: tomateak, letxugak, tipulak. Gero goranzko bidea jarraitu beharra zegoen, ezkerrera zein eskumara etxe zahar eta zaharberrituak utziz, eliza igaroz, Goio eta Garaziren etxera ailegatu arte. Herriko azken etxea. Garaiena. Guztira, berrehun metro egongo ziren bata eta bestearen artean. Aski zen.

Egun horietako batean auzoak bisitatzera joan beharko lukete. Pelikuletan bezala. Beren buruak aurkeztera eta. Baina pelikuletan, beteranoak joan ohi dira bizilagun berriak bisitatzera eta detailetxoren bat eramatera. Beheko bizilagun horiek, ordea, ez ziruditen norberaren etxera deituko zutenetakoak, goxoki kaxa edo ardo botila bat eskuan. Buruarekin eta urrundik baino ez zituzten ordura arte auzoek agurtu, inongo jakin-minik agertu gabe.

Gizon konkortu samar bat zen bata. Goizean goiz, aitzurra edo sega eskuan, mendian galtzen zena. Batzuetan Land Rover zaharra hartu eta abiadura harrigarri bidea jaisten ere ikusten zuen Goiok. Itzultzen zenean, are azkarrago zetorren, autoa kontrolatzeko arazoak balitu bezala. Urbanizazioko tabernan ere topatua zuen noiz edo noiz gizona (adin adieraztezina, lanerako faxa oraindik soinean), baina bere aurpegiak ezer ez esateko aholkatzen zion.

Neskatxa bat zen bestea, goizero taxi bat hartzen zuena, motxila bizkarrean, eta gauera arte itzultzen ez zena. Asteburu batzuetan mutil baten motorrean igo eta gero galtzen ikusten zuten.

Hori zen guztia. Ez zirudien familia ugaria eta, zaratatsuak baldin baziren, Goio eta Garaziren etxetik ezin zen igarri.

Sukaldean afaltzen zuten, goiz samar. Sukaldeko hormara iltzatutako barra batean, eserleku altuetan. Sukalde osoa berria zen, etxe-tresna modernoz hornitua. Beren inbertsiorik handiena etxe barruan. Garazik bere lanaz lehen baino gehiago hitz egiten zuela iruditzen zitzaion Goiori. Afari osoa monopolizatu zezakeen lasai asko, Ekoikuskaritza araudiaren eta ISO 14.001en inguruan berbetan, edota XYZ lankidearen azken lardaskeria deskribatuz. Inguru-giro teknikaria zen enpresa aeronautiko batean. Hegoak eta turbinak eraikitzen zituzten abioiak egiten zuen enpresa brasildar batentzako. Ia hamar urte zeramatzan jardun horretan, eta jadanik ez zeukan inongo misteriorik Goioarentzat.

Berak, ordea, ez zeukan gauza handirik kontatzeko. Etxean pasatzen zuen egun osoa. Goizaren erdian buelta bat egiten zuen. Urbanizazioko tabernara ere jaitsi ohi zen, kafea edo patxarana

hartzera, bazkalostean. Urbanizazioa ez zen oso alaia: etxe gehienak oraindik saldu gabe zeuden, eta tabernako bezero gehienak inguruetakoko nekazariak ziren, Goioentzat ulergaitzak ziren gauzei buruz mintzatzen ziren, edo musean egiten zuten hitzik bota gabe. Bueltako bidean, masustak hartzen entretenitzen zen. Prozesuan zeukan piezari buruz ez zuen inoiz hitz egiten. Arkitekturaz ez da abesten, ezta? esan ohi zuen, ahaztua zuen norbait parafraseatuz, ba arteaz ez dut nik hitz egingo. Gainera mantso zebilen, edo mantso baino okerrago, pauso bat aurrera eta beste bi atzera ematen zituela iruditzen zitzaion. Egoera, baina, ez zen oraindik Garazirekin komentatzeko bezain grabea, bere ustez.

Bat-batean norbaitek atea jo zuen, postrea etenez. Atearen aldaba originala utzia zuten (fosil pintores-koa), baina tinbre elektriko bat ere bazuten. Din-don egiten zuena.

Din-don.

Garazi altxatu zen, eta Goio atzetik joan zitzaion. Ez zeuden bisitetara ohituta (hirian bizi zirenean ez bezala) eta gertakizun harrigarria zen hura, biok ikusi beharrekoa.

Neskak ilea horiz tindatua zuen. Hurbildik ikusten zuten lehenengo aldia zen, eta argi eta garbi ikusten zitzaizkion orain bere sustrai beltzak. Tirantedun elastikoa zeraman eta anorak bat gaineratik, irekita. Hamasei bat urte izango zituen, baina makillajeak begirada zahartzen zion.

Epa, gabon. Han beheko bizilaguna naiz, Joana.

Ez zien bostekoa luzatu ez beste antzeko keinurik egin. Goio eta Garazi zer esan edo zer egin jakin gabe geratu ziren. Neska teledendako saltzaile baten moduan mintzatzen hasi zitzaion. Makillajea gorabehera, begi apartak zituen. Eta bazekien.

Ongi etorri herrira, e? –esan zuen irribarre zabal batez.

Mila esker –erreakzionatu zuen azkenean Garazik. – Ni Garazi naiz. Eta bera Goio.

Oso ondo. Beno, ba, besterik gabe, jakin dezazuela, inoiz laguntza behar baduzue, umeekin-edo, nik zaindu ditzakedala. Kanguru ona naiz. Esperientzia badaukat.

Neskak etxe barrua behatzeko ahaleginak egiten zituen, Goio eta Garaziren artean utzitako espazioa baliatuz.

Eskerrik asko, baina ez dugu umerik.

A. Ez duzue. Esku ona daukat umeekin, beti esaten didate. Baina, klaro, ez duzue umerik. Beno, ba, ez dakit, beste ezer behar baduzue, garbitzea, edo baratzean laguntza, hemen nagoela.

Besterik gabe.

Oso ondo... Joana, ezta?

Bai, Joana, hori da. Beheko etxe horretakoa. Bizilaguna. Nahi duzue? –Anorakeko poltsikotik tabako pakete bat atera eta zigarro bat eskaintzen ari zitzaien.

Ez, mila esker.

Eta zuk? –Goiori zuzenean.

Ez, orain ez.

Tira, ba, agur, gero arte, gabon.

Zigarroa piztuta gorantz jarraitu zuen, kanposanturantz, baina ez zuten begiradarekin jarraitu, berriro sukaldera bueltatu baitziren. Goio beldur zen, zirkunstantziak baliatuta, ez ote zuen Garazik umeen gaia aterako.

Ze bakarrik behar duen egon adin horretako neska batek herri honetan.

Ni ere bakarrik nago egun osoan hemen. Ez dizut penarik ematen?

Zu handia zara, eta jostailu asko dituzu denbora pasatzeko. Bide batez, zelan doa azken pieza, eskuarena?

Ondo.

Ondo... besterik gabe?

Bai, ondo besterik gabe.

Beno, ba, ea harrikoa ere ondo egiten duzun.

Ezer esan gabe jaso zituen Goiok postreko koilaratxoak eta harraskara hurbildu. Lasaituta sentitzen zen. Garazi telebista aurrean zegoen, bere mantaren barruan, eta ez zirudien ugalketari buruzko ezer esateko indarrik geratzen zitzaionik. Harrikoarekin kontzentratu zen.

Azaroko larunbat batez Goio bere estudioan sartu eta hondamendiarekin egin zuen topo. Garazi lotan zegoen oraindik baina gizonaren oihu eta madarikazioek berehala esnatu zuten.

Estudioan, dena blai. Aurreko bi egunetan etengabe bota zuen euria, eta zaparradak Goioren estudioan jarraitzen zuen orain. Putzuak zeuden nonahi. Sabaiak ere arrakalak zituen eta sabelduta zegoen leku zenbaitetan. Etxe-aldaketaz geroztik lurrean eta dorretxo txukunetan zituen liburu mordoa guztiz bustita zeuden. Bustita eta puztuta. Ekipoa konprobatzera jo zuen berehala. Kable korapiloak eta elektrizitate lapurrak lehor ziruditen. Tentsio orekatzailea, teklatua eta ordenagailua ondo zeuden. Gaitz erdi. Kaltetuena, antza, liburuak.

Arazoa, gero jakin zutenez, teila azpiko egurra zen. Lizunduta zegoen erabat. Teilak aldatzearekin ez zuten ezer lortuko. Beheko materiala aldatzea zen zentzudunena. Onduline izeneko asmakizun bati buruz hitz egin zien beren lagun arkitektoak. Isolatzailea zen guztiz, eta teilaren bat edo beste apurtuta ere, uretatik libre egongo ziren betiko.

Aldaketa garestia zen, baina hori oraindik ez zekiten larunbat goiz hartan, Goioren liburu guztiak kanpora atera zituztenean, behinola baratze izandakora, orain lorategi bihurtzeko asmoz Garazik zaintzen zuen belardira. Eguzkiak goiza laguntzen zuen, aurreko egunetako joera aldaturik, eta liburuak hortik zehar sakabanatzeko aprobetxatu zuten, aulki, mahai eta noizbait eserleku moduan erabiltzeko asmoa zuten egurren gainean, lehor zitezten. Arte liburuak ziren gehienak, liburu garestiak, handiak eta pisutsuak, are pisutsuagoak orain urez beterik zeudela. Atzerriko museoetan erosiak ziren batzuk, ahalegin handiz maletetan garraiatuak. Askotan, liburu horien erruz, gehiegizko pisuari dagokion gehigarria ordaindu behar izan zuen Goiak. Ez zuten patu miserable eta umel hori merezi. Agerikoa zen horietako batzuk ez zirela salbatuko, eta gehienek arrastoak pairatuko zituztela betiko. Goiak negar egiteko gogoa zuen.

Garazik ezin zuen tragediaren neurria harrapatu, baina gizona besarkatu zuen.

Besarkadaren erdian bizilaguna pasa zen baratze-lorategiaren aurretik. Joanaren (ustezko) aita. Oraindik ez zekiten haren izena. Lanerako buzo batez jantzita zetorren, aitzurra sorbaldan. Betiko moduan, distantzia egoki batetik egin zien agur buruarekin, baina, liburu saldoa ikusita, gerturatu egin zitzaion.

Arazoak?

Bai, itogin madarikatuak, ganbaran –azaldu zion Garazik.

Txarra da hori.

Bai, jauna.

Teilak aldatu beharko dituzue.

Zerbait egin beharko dugu, bai.

Laguntza behar baduzue... badakizue non nagoen.

Beste inork baino prezio hobea egingo dizuet.

Eta bideari berrekin zion, beste ezer erantsi gabe.

Familia hori guretzat lan egiteko irrikan dagoela dirudi –esan zion Garazik Goiori bizilaguna hor nonbaiten galdu zenean. – Zer, gosaltzera sartuko gara, ala hemen gelditu nahi duzu, liburu-zaintzan?

Sartuko gara, bai. Baina ni ez naiz gose.

Etxean sartu baino lehen, ordea, Joana agertu zitzaien.

Ai, ama, zer gertatu zaizue?

Liburuei begira geratu zen bera ere. Bere kolore eta tamaina desberdinekin ezohiko flora osatzen zuten sasi-baratze horretan. Itoginarena azaldu zioten.

Ba, laguntza behar baduzue teilatua konpontzen, badakizue... Joder, zenbat liburu. Zertarako nahi dituzue hainbeste? Guztiak irakurri dituzue? Ufff... Nik urtero erretzen ditut, kurtsoa bukatuta. Gustuagatik, besterik gabe. Hor, etxe ondoan. Beno, aurten ezin izan dut, laugarren maila errepikatzen ari naizelako. Putada bat. Baina uda honetan, sekulako sutea ikusiko duzue, bai horixe.

Eta gero, keinua guztiz aldatuz, galdetu zien: Aita ikusi duzue?

Bai, oraintxe pasa da.

Eta norantz zihoan? Ohartu zarete? Gorantz, kanposanturantz.

Bale.

Eta, berriro ere zigarro bat piztuta (agur erritual bat berarentzat, nonbait), kontrako zentzua hartu eta beherantz egin zuen alde, azkar batean.

Gabonak gertu zeuden, baina ezin plan handirik egin. Garai batean, bidaiatu egiten zuten Gabonetako oporrak aprobeztatuta. Europako hiri batean (Berlin edo Praga edo Erroma, eta hango museoetan) pasatzen zituzten lau, bost egun. Edota kanariar uharte batean atsedena

hartzen zuten.

Baina beren ekonomia ez zegoen bidaia edo uharteetarako orain.

Teilatuaren ezusteko aferak kolpe mortala eman zien kontu korronteei. Aurtengoan, turroi merkea erosi beharko zuten. Gabon gaua Garaziren familiarekin pasako zuten, umez betetako etxe zaratatsu batean. Urtezaharra Goioren aitarekin eta haren emaztearekin igaroko zuten, isiltasun handiagoz.

Gioiri sei hilabete baino ez zitzaizkion geratzen lana bukatzeko. Gero, beste pare bat hilabete zituen erakusketa prestatzeko. Bere bakarkako lehenengo erakusketa izango zen, eta pozik legoke lana behar bezala aurreratua balu. Baina ez zen horrela. Denboraren erdia xahutua zuten, baina lanaren erdia ez zegoen osatuta. Ezta laurden bat ere.

Lasai, maitea –esaten zion Garazik. – Gabonetan inora joango ez garenez, egun guztiak aprobetxatu ditzakezu lan egiteko. Dena den, nik oraindik egunak ditudanez hartzeko, ziurrenik lauzpabost egun hartuko ditut, eta hemendik ibiliko natzaizu, molestatzin-eta.

Oso ondo –erantzun zion Goiok, begiak pantailatik bereizi gabe.

Garazi lepoa musukatzen hasi zitzaion.

Zer moduz hogeita batgarren mendeko maisulan hori?

Ondo.

Alkandoraren lehenengo bi botoiak askatu eta haren bularreko ile beltzekin jolasten hasi zen. Famatua eta aberatsa egingo zara eta neska gazteago batengatik utziko nauzu? Ahaztu egingo nauzu eta hemen utziko, herri galdu honetan?

Hankartera ailegatuta, belarria miazkatzeari utzi gabe, bakeroen botoia askatzeko ahaleginak egiten ari zen, baina ez zeukan erraz.

Ba, hori gertatu baino lehen zutaz aprobetxatu beharko dut pixka batean...

Mesedez, Garazi, lanean ari naizela, joder.

Ez zuen ulertzen, etxean eginagatik, hura lana zela. Lana. Errespetatu beharreko momentua. Bera ez zitzaion sekula bere bulegora joango, bere sujetadorea askatzera. Zergatik ezin zuen ulertu? Hain zaila al zen? Hainbeste ari zen eskatzen?

Garaziren danbatekoa auzokoez entzuteko modukoa izan zen.

Gabonen ostean, Goiok uste bezala, Garaziren obsesioa areagotu egin zen. Bi arrazoi nagusi zeuden. Garaziren urtebetetzea (urtarrilean) eta Lorea (Garaziren ahizpa). Bera baino bi urte gazteagoa izanagatik bi ume zituen dagoeneko. Neska eta mutila, bikotetxo xarmagarria. Gainera, Eguberri eguneko bazkarian iragarri bezala, hirugarrenaren peskizan zeuden. Lorearen senarrak triste aurpegia zuen, eta Goiok ezin zuen gizon hura imajinatu ume bat egiteko behar den gutxienerako gar horrekin. Baina frogak hor zeuden, begien aurrean, negarrez, mukiak sofan utziz, argazki albumak apurtzen eta izeba Garaziren lerdea jarioarazten. Bizitza hutsal samarra izango zutela imajinatzen zuen Goiok, bestela ezin zuen ulertu oraindik gazteak izanik beren existentzia umez betetzeko grina zoro hori, beste guztia alde batera utziz.

Hogeita hamahiru urte, ezin dut sinetsi –pare bat egun gelditzen ziren Garaziren urtebetetzera, eta hasiak ziren aieneak.

Urtero errepikatzen zenez, ezaguna zuen Goiok hizketaldiaren nondik norakoa. Aurten operari on bat egin beharko zion. Txarrena zen kotxe bakarra zutela. Hortaz, Garazirekin joan beharko zuen hirira, eta egun osoa bertan galdu, dendetan aspertu eta gero neskaren zain egon, are aspertuago. Nagikeriak harrapatzen zuen hirira joan behar zuela ikusten zuen bakoitzean; bi astez egon zitekeen herritik mugitu gabe, pozik.

Nire kontsolamendu bakarra da agian datorren urtebetetzera hiru izan gaitezkeela etxe honetan.

Zer nahi duzu, txakur bat? Ez dugu datorren urtebetetzera itxaron behar horretarako.

Goio, txakurraren txistea pasa den urtean ere egin zenidan.

Bai, baina orain herri galdu batean bizi gara, askoz zoriontsuago izango litzateke txakur bat hemen. Eta konpainia egingo lidake, zu lanean zauden bitartean.

Goio. Benetan ari naiz. Ez dut uste askoz gehiago itxaron behar dugunik. Denbora gure kontra dago.

Garazi, momentu honetan ezin dut halakorik pentsatu ere egin. Proiektua bukatu behar dut, eta erakusketa prestatu, eta...

Baina ekainean lanera itzuli beharko duzu, eta dena askoz antolatuago egongo da orduan.

Tira, ez dakit..., agian goizegi da lanera itzultzeko. Erakusketa nola doan ikusi beharko da. Agian

zerbait indartsua saltzea lortuko dut, eta beste erakusketa baterako...

Zer? Goio, hori ez zen hitzartutakoa.

Nik dakidala ez zegoen hitzarmenik. Gauzak datozen moduan hartu beharko ditugu, ezta?

Eta nola datoz gauzak, Goio? Baina, zein mundutan bizi zara? Dagoeneko ezin duzu artista bohemiotara jolastu. Ez dituzu hogeitau urte.

Jolastu? Nor ari da jolasten? Ez dut uste ezer arrarorik esan dudanik. Bekarena ez da fantasia bat, benetan egin dute nigatik apustua, eta etorkizunean ere...

Bai, ditxosozko beka hori, ikusi zenuen zer-nolako aurpegia jarri ziguten bankuan beka aipatu zenuenean. Eta gogoratu artista gazteentzako beka bat izan zela hura, eta ozta-ozta sartu zinela hautagaien artean.

Ez nuela merezi uste duzu, ez dudala ezer balio.

Melodramarik ez, mesedez. Ez dut ezer esan nahi zure lan, talentu edo dena delakoaren inguruan. Ez dauka zerikusirik horrekin. Besterik gabe errealismoz pentsatzeko eskatzen dizut. Errealismoz? Zuk ume bat nahi duzulako usteldu behar dut nik bulego batean astelehenetik ostiralera, errealismo osoz?

Barkatu, baina hori da nik egunero-egunero egiten dudana, eta horri esker daukagu etxe hau, besteak beste.

Zure bizkarrera bizi naizela egotzi nahi didazu, hori da? Nik dakidala, orain arte erdibana egin dugu dena.

Bai, baina noiz arte? Beka laster bukatuko zaizu, eta orain esan didazu ez duzula lanera itzultzeko asmorik...

Nik ez dut esan...

Eta gainera, nik uste nuen zuk ere umeak nahi zenituela. Orain ni naiz interesatu bakarra, ala?

Tinbreak jo zuenean konturatu ziren oihuka bizian ari zirela biak. Arnasa hartu zuten, eta bolumena jaitsi. Baina nor ote da? Ia gauerdia zen. Neguko gauerdia. Kanpoan ez zen giro. Barruan ere ez.

Neska ohiko anorakarekin zetorren. Malkoek, ordea, errimela desegitearekin batera, begi zulo

sakonak eragin zizkioten. Dardarka zetorren.

Pasa naiteke?

Haize hotza zebilen, eta azkar sarrarazi zuten neska etxean. Behin alfonbra zapalduta, negarrari ekin zion. Garazik eta Goiok elkarri begiratu zioten, estututa. Garazik belarrian hatz egin zuen, zer egin ez zekienean egin ohi zuen moduan. Sukaldea seinalatu zuen gizonak buruarekin azkenean, eta hara eraman zuen Garazik neska, besoa sorbalden gainean jarrita.

Lasai, Joana, ez negarrik egin, esaguzu zer duzun...

Baina neskak ez zuen ezer esaten, negarra baino ez zuen egiten, zotinka gero. Bere begi berdeak inoiz baino distiratsuago zeuden.

Cola-cao bat prestatuko dizut, nahi?

Mahaiaren inguruan eseri ziren hirurok. Neskak negar-jarioa eten eta zurrupada txiki bat eman zion cola-caoari. Baina ez zen hitz egitera animatzen.

Zerbait gertatu al da etxean?

Garazik ondo neurtu nahi zituen bere hitzak. Neskaren begiak geroz eta sakonagoak egiten zirela zirudien.

Zerbait gertatu zaio zeure aitari?

Aitaren aipamena entzun eta negarrari ekin zion berriro Joanak. Gero, anoraka jaitsi eta ezkerreko sorbalda utzi zuen agerian. Zigarro markak bost ziren, gorriak: zirkulu bat osatzen zuten bosten artean. Berehala gorde zuen sorbalda, eta trago luzeago bat eman zion cola-caoari.

Aitak egin al dizu hori?

Neskak ez zuen ezer erantzun. Burua gehiago sartu zuen sorbalden artean.

Esaguzu, Joana, berak egin al dizu?

Ezer erantsiko ez zuela zirudienean, biak harrituta utzi zituen modu argi eta lasaian mintzatu zen:

Hemen geratu naiteke gaua pasatzera?

Zur eta lur geratu ziren Goio eta Garazi. Kontua konplikatua zen. Alde batetik, nork ukatuko lioke neska babesgabe bati aterpea, batez ere inguruan senide psikopata baten mehatxua zebilela jakinda? Beste alde batetik, neska adin txikikoa zen eta aitak erraz asko erreklamatu zezakeen bere alaba, modu txar samarrean, edo bikoteari bahiketa leporatu, zergatik ez.

Ez izan esajeratua, gizona.

Garazi neska hartzeaz konbentzituta zegoen, eta Goio konbentzitzen saiatzen ari zen, saloian, neska momentu batez sukaldean bakarrik utzita.

Gau bakar batez ez da ezer gertatuko. Bihar gauzak argitzen saiatuko gara.

Tira, ongi da, baino gero ez esan nire ideia izan zela.

Sukaldera bueltatu ziren. Katiluan ez zen esnerik geratzen.

Zatoz, Joana, saloiko sofa irekiko dizugu –esan zion Garazik goxoki– eta nire pijama bat ere utziko dizut.

Umeen gelan ere gera zitekeen, baina hurbilegi zegoen beren logelatik. Sofa-ohearena erdibideko soluzioa iruditu zitzaien.

Ordu bata zen azkenik ohera sartu zirenean. Sei ordu barru iratzargailuak joko zuen. Hala ere, ezin zuten lorik hartu. Biak ere belarriak zorrozten saiatu ziren, beheko pisutik, saloitik, etor zitekeen edozein soinuri antzemateko. Baina ez zen ezer aditzen. Biharamunean dena argituko zela esanez lasaitu nahi izan zuten elkar. Azkenean Garazi lokartu zen, eta Goiok, haren arnasaldiari jarraituz, bide bera hartu zuen handik gutxira.

Hurrengo goizean Garazik, dutxatuta eta jantzita gosaltzera jaitsi zenean, ez zuen inor topatu beheko pisuan. Sofa-ohea gordeta zegoen; maindireak, bola bat eginda, gainean utzita. Bere pijama arrosa aulki baten gainean zegoen, tolestuta. Te bat edan eta autoa hartu zuen, berandu samar baitzihoan. Joanaren etxe aurretik pasa zenean ez zuen ezer berezirik sumatu.

Afera bere horretan uztea hoberena izango zela pentsatu zuten. Gau hartan gertatutakoa ahazten saiatu ziren, garrantzia kendu zioten. Nerabe-guraso ohiko istilu bat izan zitekeen, besterik ez. Eta nork esaten zien benetan aitak eginak zirela zigarro markak? Joanak ez zuen esplizituki hori adierazi. Beheko etxean lasai zirudien denak. Joana ikusten zuten, ohi bezala, eskolara joan-etorrian. Aitak ere bere errutinekin jarraitzen zuen, soroetara lanera, edo Land Rover-arekin auskalo nora.

Garaziren urtebetetze-festa zen gainera beren kezka eta okupazio nagusia. Sekulakoa izango zen. Lagun askorentzat lehenengo aldia zen etxea bukatuta eta txukunduta ikusten zutela. Garaziren lankideak ere etorriko ziren. Guztira, hogeita hamar pertsona bilduko ziren larunbatean. Ia guztiak umerik gabeko gazte alai eta osasuntsuak.

Garazik distira berezi bat zeukan bere egunean. Aspaldi ez zuen Goiok hain zoriontsu ikusten. Ederra ere bazegoen (pelukerian egona zen goizean, eta alkandora polit bat estreinatzen zuen). Pintxoak prestatzen igaro zuten arratsalde osoa, eta autoan ia sartu ez zitzaizkien botilak saloian, sukaldean eta portxean kokatzen.

Gehiegi edan ostean kotxea hartu nahi ez zuten lagunak etxean gera zitezkeen lotan. Batzuek koltxoi puzgarriak ekarri zituzten, propio. Opariak ere bai. Brindisak etorri ziren gero. Jan eta edanera dedikatu ziren buru-belarri. Gonbidatuek gustuko izango zutelakoan, su eder bat piztu zuten inoiz erabiltzen ez zen tximinian. Norbaitek dj lanak egin zituen eta musika mundu guztiaren gustukoa suertatu zen. Dantzan hasi ziren animatuenak. Zenbaitek marihuana erre zuten portxean, eta sukaldean gero, hotzegi zegoelako kanpoan. Garazik tartako kandela guztiei putz egin ostean (ez ziren hogeita hamahiru, hogeita hamar urte betetzearekin batera utzi baitzion kandela berriak erosteari) cava botila bat ireki eta gonbidatu guztiei pittin bat zerbitzatzeko hasi zen.

Zorionak, Garazi.

Kopa bat betetzear zegoen koparen jabea identifikatu gabe, baina ahots horrek gorantz begirarazi zion.

A, Joana, hemen zara.

Bai, eskerrak ematera etorri naiz, aurreko egunekoagatik, besterik gabe..., eta zuen lagun batek ireki dit ateak. Ez nekien festa bat ematen zenutenik. Oso jatorra zuen lagun hori, Ander deitzen zela uste dut...

Ondo zaude? Esan nahi dut... arazorik etxean?

Ez, ez, ondo nago, dena ondo etxean, baina hemen pixka bat geratzea bururatu zait, besterik gabe..., kristoren giroa daukazue, aizue!

Eta zure aitak badaki hemen zaudela?

Ez dago etxean, edatera irtengo zen. Zer, ez didazu xanpain pixka bat emango, ala?

Garazik duda egin zuen. Adin txikiko baten aurrean zegoen. Azkenean pittin bat ematea erabaki

zuen, eta Goioen bila joan zen gero, cava gehiago erreklamatzeko ziotenei muzin eginez.

Goio, ikusi duzu nor etorri zaigun, ustekabean?

Auzoagatik diozu? Bai, lehen ikusi dut, patata tortilla jaten. Uste nuen zuk gonbidatu zenuela, aurreko egunean hain abegitsu portatu zinen berarekin...

Nola gonbidatuko nuen nik? Saltsa ikusi eta hemen sartu da, bere kopeta guztiarekin.

Eta zer egin behar duzu ba, bota?

Zuk egingo zenuela uste nuen.

Txoratu al zara? Nik ez dut rolo txarrik nahi gaur. Nigatik, gera dadila. Ez du molestatzen.

Neskari begiratu zioten, saloiko beste aldean. Cava apurra bukatuta, bere edalontzia berriro ari zen betetzen, ronarena zirudien botila bati lotuta.

Hau mozkortzera etorri da, ikusten? Goio, zerbait egin beharko genuke.

Baina Goio betiko lagun batekin hasia zen abesten, eta Garazi konturatu zen ez zegoela ezer egiterik. Joana erraztasunez hasia zen bere lankide birekin berbetan, lankideak barrezka ari ziren gainera Joana komentatzen ari zen zerbaitengatik, eta berak ere dibertsio apur bat bilatzea erabaki zuen. Azken finean, bere urtebetetzea zen. Beste cava botila bat ireki eta bere buruari zerbitzatu zion lehenengo kopa, merezi zuen eta.

Hurrengo egunean Goio eta Garazik Historiako Buruko Minik Lazgarriaren titulua eskuratzeko lehian sartzeko prest esnatu ziren. Garazik ezin zuela altxatu aldarrikatu zuen, baina handik hamar segundotara korrika bizian joan behar izan zuen komunera. Goio faltan bota zituen hamazortzi urte zituen garaiak, denetariko nahasketa koloretsuak edan ostean, fresko eta alai altxatzen zen garai urrun hura.

Ez zekiten azkenean ze lagun gelditu ziren etxean lotan. Ezin zuten festaren bukaera gogoratu. "Umeen gelara" sartu zen Goio eta morrosko bi ikusi zituen, bere betiko lagunak, sehaskaren orde kokatutako ohean. Zurrungaka zeuden biak eta Goio bere sabel puztuei erreparatu zien: berriak ziren. Eskailerak jaitsi zituen gero, eta saloian lau pertsona kontatu zituen, botila eta eda- lontzi mordoxka baten erdian. Bikote bat lurrian zegoen, gaizki puztutako koltxoi baten gainean, lozakuetan. Beste bat sofa-ohean, maindirerik gabe, berokiak manta gisa erabilia, edozein modutan. Baina ez zituen lehenengoan ezagutu. Gizona Garaziren lankide bat zen, haren nagusia zehazkiago esanda, baina Garazirekin ondo (ondoegi, Goioen iritziz)

konpontzen zena. Neska... neska Joana zen. Ilea aurpegitik kendu behar izan zion guztiz ziur egon arte. Festan eramandako arropa berarekin zegoen lotan.

Baina ze ostia...? –murmurikatu zuen Goiok.

Lau lotiak ez ziren esnatzen eta Goio Garaziri txosten osoa ematera igo zen.

Zer? Hemen gelditu dela lotan? Eta non? Sofa-ohean, Eduardorekin. Eduardorekin ohe berean?

Begiak ireki gabe hitz egiten zuen emakumeak, eskua kopetan, ohean berriro. Zer egingo dugu?

Ez dakit... Goio, oso gaizki nago, bi aldiz egin dut oka..., momentuz, zergatik ez didazu te bat prestatzen?

Ohera bueltatuko litzateke gustura asko, baina zarata apur bat egitea komeni zela iritzi zion, loti guztiak esnarazteko eta bakoitza bere etxera itzul zedin. Loti horietako bat bereziki.

Sukaldean aritu zen, inongo kontenplaziorik gabe kizarak maneiatur, eta gero, saloiko atean oihu egin zuen.

Gosaria prest dagooooo!

Ez zen guztiz egia: kafea eta tea besterik ez zegoen, ez baitzen jatekorik geratzen. Kafea prestatzen zuen bitartean gogoratzen hasi zen goizeko bostak inguruan, festa beherantz zihoanean, Jokinekin sartua zela sukaldean eta magdalenak eta gailetak jaten hasi zirela, dena bukatu arte. Ogia ere, pintxoak egiteko xahutua zuten. Kafe eta te soila, beraz, izorra zitezela. Koltxonetakoak berehala esnatu ziren, Garaziren ingeniari-tza eskolako ikaskide bi, bizkarreko minaz kexaka biak ere. Eduardori gehiago kostatu zitzaion, marmar egin zuen, ingurura begiratu zuen, desorientatua, eta Joana esnatu zuen gero. Goikoak baino ez ziren falta, Garazi barne. Baina pausoka egitea erabaki zuen Goiok. Joan zitezela lau hauek lehenik eta behin, eta gero gerokoak.

Joanak ez zion begiratu edo hitzik zuzendu. Jada ezaguna zitzaion sukaldeko mahaian eseri eta kafea zurrupa- tzen hasi zen, paperezko ahozapi batekin begietako makillajea kentzen zuen bitartean. Eduardo alboan eseri zitzaion baina ez zirudien ezertaz ezagutzen zuenik. Begiak irekita zituen arren, oraindik ez zegoen esna.

A zelako festa... –bota zuen azkenean neskak. – Noiz errepikatuko dugu?

Joana, zure aitak ba al daki hemen zaudela?

Lasai, ohituta dago.

Zurripada luzeago batez adierazi zuen ez zuela beste ezer eransteko gogorik. Beste gonbidatuak ere beren edabeei lotu zitzaizkien, ezer esan gabe, jatekorik ez zegoelako kexatu gabe. Goiko pisukoak ere jaitsi ziren eta, poliki-poliki, denek alde egin zuten.

Garazik, ordea, ohean jarraitzen zuen.

Alde egin dute guztiek.

Gure neskatoak ere bai?

Bai, berak ere bai. Bazkaria prestatuko dut eta gero siesta egingo dugu, ados?

Egin nahi duzuna, nik ezin dut ezer jan.

Garazi, zure adinarekin, gehiago kontrolatu beharko zenuke.

Izorrai.

Ajeak asteazkenera arte iraun zion Garaziri. Astelehenean, Eduardorekin hitz egin zuen festaz, azaletik, anekdota tontoren bat edo beste elkarri gogoraraziz, baina nagusiak ez zuen ezer aipatu Joanaz. Azkenean, Garazik kasualitate hutsez egin zutela batera lo erabaki zuen, biak mozkor eta nekatuta egonda, sofa hura topatu eta biontzako lekua zegoela ikusita. Gonazale porrokatua zen Eduardo, hori gauza jakina zen, baina hamasei urteko batekin ez litzateke atrebituko. Are gutxiago Garaziren etxean.

Ostiralean, goizean goizetik, elurra botatzeari ekin zion eta ez zuen egun osoan atertu. Arratsalderako moztuak zeuden errepide ugari, horien artean Garaziren etxera zeramana. Mariaren etxean geldituko zela abisatzeko deitu zion Goiori. Maria beren lagun arkitektoa zen, etxearen berrikuntzekin lagundu ziena. Bakarrik bizi zen eta oso gustuko zituen bisitak.

Lehenengo gaua zen Goiok etxean bakarrik pasatzen zuena. Ahal bezain ondo profitatzea erabaki zuen. Ezkongabearen bizimodua disfrutatzea, hori zuen egiteko bakarra. Inoiz ez zen bakarrik bizi izan. Pisu konpartitu batean sartu zen ikasle garaian, gero gurasoen etxera bueltatu zen (ama gaixorik zegoen ordurako, eta nolabaiteko obligazioa sentitu zuen), eta handik, zuzenean, Garazirekin bizitzen jarri zen. Damutzen ez zitzaion arren, batzuetan pentsatzen zuen goizegi joan zela neskekin bizitzera (hogeita sei urte zituen), eta bestelako

bitza-estilorik probatu ez izanak kuriositatea eragiten zion.

Zer egiten du, bada, bakarrik bizi den gizonetako batek, lana bukatu duenean, afaria jan eta harrikoa egin duenean, kanpoan elurra bota ahala ari duenean? Kopa bat prestatzea otu zitzaion. Patxarana, bourbona eta ardoa gelditzen ziren oraindik festa egunetik (harrigarria, edan zuten guztia kontuan hartuz). Bigarrenaren alde egin zuen. Ostirala izanda, eta hirian egonda, Garazik hortik zehar ateratzeko aprobetxatuko zuela pentsatu zuen, indarrak berreskuratu bazituen, behintzat. Mariarekin irtengo zen, hark utziko zion arropa egokiren bat, gauerako. Parrandazale porrokatua zen Maria. Ez zuen gizonen bat ezagutzeko aukerari inoiz uko egiten.

Basoa eskuzabalki bete ostean, izotzik gabe, bere buruagatik egin zuen topa. Begiak malkoz bete zitzaizkion baina bere buruaren aurrean disimulatu nahi izan zuen. Gero, pare bat izotz erantsi zituen. On the rocks. Aste produktibo samarra izan zuen. Aspaldian ez bezala. Telebista piztu ordez, leihotik begira jarri zen. Elurtea apaltzen zihoan. Biharamunerako, agian, ez zen geruza fin eta belztu bat baino geratuko. Garazik ez zuen itzultzeko arazorik izango. Plastikoa hartu eta irristaketara dedikatu zezaketen eguna.

Azkenean, ezin izan zion telebistaren deiarri gehiago eutsi. Zapping azkar bat egin zuen, inertziak. Inoiz ikusi gabeko eta doi-doi harrapatzen zen kate lokal batean geratu zen iltzatuta. Porno zatar samar bat zegoen pantailaren zatirik handienera, eta azpiko partean, errotuluen bidez, jendeak bidaltzen zituen SMSak plazaratzen ziren. Zakil lodiak eta neska beroak eskatzen zituzten mezuak, telefono bidezko edo kotxe barruko sexua eskaintzen zutenak. Ezkongabe bitza eramatekotan, horrela bukatuko zuen berak ere, ordu txikietan infra-kate horietako batera mezu penagarriak bidaltzen? Barre egin zuen imajinatzerekin batera, eta gauean lehenengo aldiz faltan bota zuen Garazi.

Orduan, aldabaren soinua entzun zuen. Haizea izango zela pentsatu eta sofatik altxatzea baztertu zuen, baina berriro entzun zuen. Eta azkenean, txirrinak ere jo zuen. Poliki abiatu zen aterantz eta ireki zuenean, auskalo zergatik, topatu zuenak ez zuen batere harritu.

Kaixo, Goio, sar naiteke?

Ikusi zuen azken aldian baino itxura hobea zeukan neskak. Ondo orraztuta, ondo makillatuta, bufanda gorri bat zeraman lepo inguruan, eta kolore bereko eskularruak.

Zer duzu, Joana? Arazoren bat?

Neskak ez zuen erantzun. Sartu eta bufanda kentzen hasi zen. Eskularruak ere bai. Gero betileei eragin zien. Benetan ikusgarriak ziren bere begiak.

Ederra elurtea, ezta? Non utz dezaket anoraka? Bustita dago.

Emaidazu, baina... ezer behar duzu?

Eta Garazi? Ez dago etxean? Edo lotan dago jada?

Ez, ez dago etxean.

Autoa ez zegoen ohiko tokian, eta kanpoko edozein behatzaile finentzat agerikoa behar zuen Garaziren absentziak.

Zer, telebista ikusten ari zinen?

Goio neskari jarraitu zion saloirantz eta ahal bezain azkar mandoa harrapatu eta telebista itzali zuen.

Lasai, gizona, nik ere ikusten ditut horrelakoak aldian behin, mezuak irakurtzeko batez ere, barrez lehertzeko modukoak dira batzuk, ezta?

Joana, ezer behar baduzu, esaidazu, oheratzekotan nengoen, nekatuta nago eta.

Whisky hori bukatu gabe oheratu behar zenuen?

Goio zer esan ez zekiela geratu zen, sofa aurreko mahaitxoaren gainean zegoen edalontziari begira. Ia osorik zegoen oraindik.

Barkatu ez badizut eskaintzen, baina nahikotxo edan zenuen larunbatean, ezta?

Nahikotxo? Hori ez zen ezer izan, gizona!

Eta aita? Enteratu al zen hemen pasatu zenuela gaua?

Aita, aita, aita... eta nori axola zaio hori?

Sumindura nabaritzen hasia zitzaion aurpegian. Arazorik berarekin?

Mozkor horrekin nola ez dut ba arazorik izango? Benetan, ezin dut gehiago agoantatu – negarrari eman behar ziola ematen zuen, baina Goio ez zuen malkorik ikusi. – Baina utz dezagun hori, ez dut aitari buruz hitz egin nahi. Gaurkoz libratu naiz.

Joanaren itxura ez zen ogro baten eskuetatik ozta-ozta ihes egindako neska batena. Ondo

prestatua zetorren bere etxera, ile bakoitza bere lekuan, arropa ondo aukeratua. Leihotik begiratu zuen, Joanaren etxerantz. Garajea zutenez ezin Land Rover-a bertan zen ala ez jakin. Argirik behintzat ez zen ikusten.

Lasai, ez da etorriko, lo seko geratuko zen zurrutari gogoz eman ostean, betiko moduan.

Begira, Joana, ni ez naiz agian pertsona egokiena honi buruz hitz egiteko. Akaso kanpoko laguntza bilatu beharko zenuke, gizarte-laguntzaile batekin hitz egin, edo psikologo batekin...

Popatik hartzera psikologo guztiak! Zer uste duzu? Ez naizela beraiekin aritu? Ama hil zenetik irakasle alu guztiek bidaltzen naute ikastetxeko psikologoarengana. Eta zertarako? Ezertarako ez!

Sofan eseri zen neska, Goio zutik geratzen zen bitartean. Basoa hartu eta izotzei soinua ateratzen hasi zen Joana.

Orain trago bat emango didazu?

Ez. – Eskuetatik basoa kendu zion, tentazioa uxatzeko—. Adin txikikoa zara.

Hamazazpi urte beteko ditut datorren hilean.

Horixe ba, adin txikikoa zara. Datorren urteko otsailean zatoz hona eta nahi dituzun whisky edo patxaran guztiak aterako dizkizut.

Benetan?

Bai.

Ez dut uste hemen egongo naizenik datorren urtean, baina mila esker eskaintzagatik. Urtebete agoantatzea gehiegi agoantatzea da.

Hitz ilunok neskaren alboan esertzera bultzatu zuten Goio. Isilik egon ziren tarte luzeegi batez. Zuk ez duzu lanik egiten, ezta?

Nik?

Bai.

Nire aitak ere ez. Istripu bat izan zuen orain dela urte pila bat eta elbarritasun pentsioa ematen diote. Orain baratzea eta hor kanposantu inguruan dituen lur batzuk lantzen entretenitzen da.

Horrekin eta botilarekin, noski.

Baina nik lan egiten dut. Etxean egiten dut lan. – Puntu hori argitzeko beharra zeukan Goiok.

Etxean? Etxekoandrea zara, orduan?

Neskaren barreek inoiz aitortuko ez lukeen modu batez mindu zuten.

Artista naiz.

Ez zuen sekula izendapen hori erabiltzen bere burua deskribatzerakoan. Handiegi gelditzen zitzaiola iruditu ohi zitzaion. Aurrezki kutxak beka eman zionean albistea prentsan agertu zen, eta kazetariak hitz hori zerabilten bolo-bolo, “artistaren proposamena”, “artista gaztearen iritzi”... Lotsagorritu egiten zen hitz horiek bere izenaren ondoan inprimatuta ikuste hutsarekin. Orain, ordea, neskari aldarrikapena botatzean, harrotasun handiz egin zuen, inolako kontzientzia txarrik gabe. Neskak ere hitzen garrantziari antzeman zion.

Artista! La ostia! Horregatik dituzu hainbeste liburu, noski.

Bai –erantzun zuen Goiok, esplikazio horrekin nahastuta, baina era berean neskaren entusiasmoarekin horditurik.

Eta zer egiten duzu, pintatu?

Eskultura. Eskultura digitala.

Digitala?

Bai. Fisikoki modelatu beharrean, ordenagailuan egiten dut lan hori. 3D teknologia erabiliz. Modelatua eremu birtualean. Gero, modelo fisikoa ere lor dezaket, prototipatu-makina baten bidez...

Neskak ezer ulertzen ez zuen aurpegia zeukan. Une batetik bestera interesa galduko zuela zirudien. Eta Goiok ezin zuen horrelakorik onartu.

Etorri nirekin, erakutsiko dizut.

Oina lehenengo eskailera-mailan jartzearekin batera marra ikusezin bat zeharkatzen ari zen sentipena izan zuen Goiok. Hala ere, horrek indar handiagoz igoarazi zizkion eskailerak. Neskak, eskailera bidean, zigarro bat pizteko aprobetxatu zuen. “Eskerrak ez dagoela Garazi hemen” pentsatu zuen Goiok.

Begira, hauxe da nire estudioa.

Atea zabaltzearekin batera neska seko liluratuta geratuko zela pentsatu zuen gizonak. Agian horregatik dezepzionatu zuen apur bat haren erreakzioak.

A. Ze ondo.

Inguruari begira geratu zen Goio, bere erresumari begira. 3D artisten estudioak ez dira agian errenazimenduko artisten estudioak bezain ikusgarriak, baina txokoak bazuen bere xarma, eta agerikoa behar zuen edozeinentzat. Liburuak (triskatuta horietako asko, bai) apalategietan kokatuta zeuden orain. Paretetan bere obra batzuen erreproduzioak zeuden, aluminio plantxetan. Mahaia handia zen, eta ordenagailuak, bere kable mataza eta eranskin guztiekin, zientzia-fikziozko pelikula batetik atera berria zirudien. Reflex bat ere ikusgai zegoen. Eta buru-hezurra.

Hauxe da eredu moduan erabiltzen dudan buru-hezurra.

A ze nazka. Zer egiten duzu horrekin?

Modelatu egiten dut, ordenagailuan. Eta behin irudia hiru dimentsiotan dudala, berarekin nahi dudana egin dezaket. Adibidez, buru-hezur honekin egingo dudana izango da okzipitala puztu. Begira –buru-hezurra eskuetan zuela egiten zuen berba–, hezur okzipitalaren atzean lobulu okzipitala dago, eta bertan bihurtzen da irudi gure begiek antzematen dutena.

Giza adaptazioaren inguruko hausnarketa sakon bat zegoen proiektu horren muinean. Gizakia mundura egokituz. Gizakia, munduaren eta gizartearen garapen zoroaren aurrean, bere gorputz atal batzuk atrofiatuz eta beste batzuk gehiegizko modu batez garatuz. Amesgaizto lamarckianoa. Eskua IV izeneko lana adibidez: atzamar indizearen giharrak guztiz garatuta, handituta, saguarekin pasatako ordu guztien ondorioz. Internet eta inkomunikazioa. Gizarte kontsumistari kritika. Irudiaren gizartearen inguruko hausnarketa garrantza. Bekarako aurkeztu zuen txostenean modu argigarrian azalduta zegoen hura guztia. Baina orain, neskaren aurrean, hitzik gabe bezala zegoen. Akaso hortik zehar zituen anatomia liburuak erakutsiko balizkio, hobeto ulertuko zuen dena.

A zer kamera polita! –Azkenean zerk edo zerk piztu zuen neskaren arreta. – Egidazu argazki bat, artista!

Bere altxorra. Nikon D70, reflex digital zoragarri bat. Neskak Goioen eskuetan jarri zuen altxorra, eta berak, pentsatu gabe, klik egin zuen, neskaren plano txiki bat hartuta.

Aizu, momentu bat! Ezustean harrapatu nauzu-eta...

Neskak eskuak bere lan-aulkian paratu zituen eta burua apur bat okertu zuen. Gero, bere begirada sarkorra objektiborantz zuzendu zuen, errukirik gabe.

Beno, listo..., pozik? Eta orain, zergatik ez...? –esan zuen Goiok asko pentsatu gabe bigarren aldiz klik egin zuenean.

Eta orain beste bat! Biok batera!

Eta Goioren sorbaldan jarri zuen besoa. Goiok hotzikara bat sentitu zuen, kamera ahal bezain beste urrundu eta bion argazki bat egin zuen, irribarre tentel bat saiatuz.

Bale, badago.

Bidaliko didazu kopia bana, ezta? Nire e-maila emango dizut, non apuntatuko dut?

Orain neska axotaren bila zebilen Goioren paper eta liburuen artean, eta gizonak, lehenengo aldiz, egoera eskuetatik joana zitzaiola onartu behar izan zuen. Baina neskak aurkitua zuen papera, nonbait, eta baita boligrafoa ere, eta letra handi batez apuntatu zion bere helbide elektronikoa.

Informatika klasean bakarrik begiratu dezaket korreoa, baina tira.

Goiok atzeko patrikan gorde zuen papera, automatikoki. Puntu eta aparte. Amaitzeko ordua zen. Ohera joateko ordua. Bakoitza bere ohera.

Tira, Joana, berandu da eta...

Bai, badakit berandu dela, eta barkatu.

Estrategia aldaketarako garaia. Serio zegoen orain Joana. Ile mototsetik ihes egindako ile batzuk belarri atzean kokatu zituen, bi hatz dardaratiz. Gero, Goiok paretaren kontra zeukan dibanean eseri zen, begiekin baimena eskatuz.

Badakit berandu dela, baina ezin dut etxera itzuli. Alde egin nahi dut. Betiko.

Betiko, e?

Benetan ari naiz.

Ummm, baina nora joango zara, Joana?

Hirira. Badaukat lan egiteko adina. Eta lagun batek lana lortu diezadake arropa-denda batean. Baina non biziko zara? Adin txikikoa zara, ez dizute utziko...

Hori berdin zait orain, alde egin behar dut, alde! – Ukondoak belaunetan eta aurpegia eskuetan, negarrez zegoen neska, eta oraingoak benetako negarra zirudien. – Ezin dut gehiago agoantatu, ezin dut, nire ama bezala bukatuko dut bestela...

Goio distantzia bat mantentzen saiatzen zen. Distantzia fisikoa, baina baita bestelakoa ere. Kanpotik eszena jarraitzea. Kanpotik.

Ezin zuen, eszena horren barruan zegoen bera ere, nahitaez. Bere buruak agintzen zionaren kontra, azkenean neskaren ondoan eseri zen, ahal moduan, dibanean.

Besoa pasa zion sorbaldeetatik, sotilki, bere besoaren pisua neskaren gorputzean deskargatu nahi gabe, neskak argazkirako egin zuen bezala. Kotsolatu egin beharko zuen edo. Neskak, orduan, burua altxatu zuen, eta sakonetik begiratu zion:

Sos batzuk behar nituzke, lehenengo egunak pasatzeko. Itzuliko dizkizut, benetan, lanean hasten naizen momentuan bertan.

Goio besoa kendu zion sorbaldeetatik, haren bizkarrak, bat-batean, erreko balu bezala.

Baina zertaz ari zara? Ez daukazu kotxerik ere! Nola joango zara?

Lagun bat daukat... motorra duena. Nire bila etorriko da, ordubietan gelditua naiz berarekin. Berak eramango nau. Baina berak ere ez dauka diru askorik.

Joana, hau erokeria bat da. Zergatik ez duzu bihar arte itxaroten? Bihar, egun-argiarekin, dena beste modu batera ikusiko duzu, eta erabaki zentzudunak hartu ahal izango dituzu...

Ez, Goio, asteak daramatzat hau planeatzen. Erabakia hartuta dago. Alde egin behar dut, besterik gabe. Ez dago atzera bueltarik. Mesedez, uler ezazu...

Elkar ukitzen ez zuten arren, gertu-gertu zeuden, bata besteari begira, begirada lehor bat begirada busti baten kontra. Talka. Eta momentu batez, bat-bateko foku urdin baten pean bezala, Goio neska ulertzen zuela imajinatu zuen, eta nahi zuen guztia ematen ziola ere etorri zitzaion burura, eta gero haren besoetan galtzen zela haren bihotz taupadekin bat egin arte, eta malko guztiak hurrupatzen zizkiola, eta sorbalda mindua musukatzen ziola, eta gero beste sorbalda ere bai. Azkenean diban hura zulo bihurtzen zen, eta zuloak biok zurrupatzen zituen,

grabitatearena baino indartsuagoa zen indar berri batek erakarrita.

Goiz altxatzea pentsatua zuen arren, hamaikak ziren begiak lehenengoz ireki zituenean. Aurreko gauean pentsatu bezala, elur apurrak baino ez ziren geratzen han-hemenka. Garazi ailegatzekotan egongo zen, eta berak, frogak borratu beharra sentitu zuen, modu urgente baino zehaztugabe batean. Baina ze froga? Pijamarekin oraindik, etxetik buelta bat eman zuen, aurreko gaueko detaile oro gogoratu nahirik. Patxaran basoa harraskara eraman zuen. Gero bere praketako atzeko patrikan gordetako papera gogoratu eta komunean behera bota zuen. Lasaiago gelditu zen papera desagertzen ikusi zuenean.

Zergatik jokutzen zuen delinkuente batean moduan? Ez zuen galdera hori erantzuteko betarik izan, Garaziren autoa aditu baitzuen, etxera hurbilduz.

Oraindik pijaman, loti hori?

Croissant egin berriak zekartzan eta Goiok gutizia eskertu zuen. Aurreko gaua lasai pasatua zuen Garazik Mariaren etxean, atera gabe, biak ere nekatuta baitzeuden eta elkarri gauza ugari kontatzeko gogoz.

Aizu, goazen plastiko batekin, hortik zehar irristatzera! –proposatu zuen Garazik, gosaria bukatu zutenean.

Goiok ez zuen jadanik irristaketan ibiltzeko gogorik, baina neska poztearren baietz esan zuen. Jantziko zela eta gero plastikoren bat bilatuko zuela mudantzako kutxen artean.

Ateratzeko prest zeudenean, Garazik ideia berri bat izan zuen:

Eta hartu kamera! Ederra dago ingurua!

Goio bere estudiora igo zen Garaziren kapritxoa betetzera, baina kamera ez zegoen ohiko tokian, mahai gainean. Dibanean begiratu zuen. Paretako iltzeetan. Paperen artean. Tiraderetan. Mahai azpian. Ezer ez. Logelako mesanotxean, armairuan, komodan. Ezer ez. Umeen gelan, ezer ez. Saloian, sukaldean, eskailerapean, ezer ez, ezer ez, ezer ez.

Eta kamera? –galdetu zion Garazik, Goio esku-hutsik atera zenean.

Ez du bateriarik, kargatzen utzi dut.

Beti berdin, behar dugun bakoitzean egiten digu kale. Tira ba, goazen jolastera!

Baina Goioentzat jolasak ez zuen inongo graziaz izan, disimulatu zuen arren. Kamera berreskuratu beharra zuen. Noiz hartu ote zuen Joanak? Momentu bakarra zegoen, Goioen aburuz: dirurik emango ez ziola argitu eta estudiantik hitzik erantsi gabe atera zirenean. Goioek hartu zuen aurrea, Joana bere gibelean zihoan, harro, eta orduan kamera hartu eta poltsan sartzeko abagunea izango zuen. Neska madarikatua. Bere burua ere madarikatu zuen. Hogei euro eman izan balizkio agian konformatuko zen. Baina kamera. Kamera lanerako behar zuen. Modelo fisikoaren argazkiak egiten zituen etengabe, gero erreferentziak hartzeko. Eta berri bat erosteko dirurik ez zuen, beraz, berreskuratzea baino ez zitzaion geratzen.

Beharrezkoa izanez gero, guardia zibilari deituko zion. Bai horixe.

Baina, pauso hori eman aurretik, tarte bat eskainiko zion neskari, hausnar zezan, bere errorea konpon zezan, hau da, lapurtutakoa itzul zezan. Agian damutu eta berehala itzuliko zuen kamera. Agian bai. Edo agian ez. Agian bahi-denda batean zegoen dagoeneko bere kamera. Baina, tira, larunbata zen eta bahi-dendak itxita egongo ziren. Funtsik gabeko ideia hori buruan (zer zekien berak denda mota horien ordutegiaz?) egunean aurrera egitea lortu zuen.

Zer duzu, Goio? –galdetu zion Garazik pare bat aldiz.

Ezer ez, zer izango dut ba?

Etxera itzultzean, ogitarteko batzuk baino ez zituzten prestatu bazkaltzeko, eta postrea bukatu baino lehen, bigundu, elkarrengana oldartu eta maitasuna egin zuten. Logelako estufa piztuta, manten pean kuzkurtuta geratu ziren arratsalde pasa, bizkarra bularraren kontra. Goioek ahaztua zuen kameraren afera, edo behintzat bere pentsamenduen zerrendan oso atzean utzia zuen. Garaziren belarrira mintzatzen zen, xamurki:

Agian arrazoia duzu, eta pilula hartzeari utzi beharko zenioke.

Zer?

Horixe ba, agian momentu egokia dela hau.

Benetan?

Goioek ez zekien oso ondo zergatik esan zuen hori, asko pentsatutako aldarrikapena ez zen, hori ziur, baina bota bezain laster gauzak ondo egiten ari zen sententzioak horditu egin zuen eta ez zuen sentipen hura etenarazteko inongo asmorik.

Bai, Garazi, arrazoia zenuen. Ez egiteko aitzakiak beti izango ditugu, eta azkenean sasoia pasako zaigu. Beraz, zergatik ez orain?

Benetan?

Garazik ez zuen halakorik espero eta horregatik ez zuen hitzik aurkitzen. Buelta eman zuen, Goio besarkatzeko, eta, bidez batez, Goioen bularra malkoz betetzeko.

Baina ez negarrik egin, txotxola!

Ilun zegoen kanpoan. Garazi bainu bat hartzen ari zen, eta luzarorako omen zuen. Goiok buelta bat egin nahi zuela esan zion, beheko pisutik, garrasika. Airea behar zuen. Ondo jantzi eta kanpora jo zuen. Izugarri hotza zen gaua. Aranondoak izoztuta zirudien. Zigarro bat piztu zuen, horrek berotuko zuen esperantzan. Bizilagunen etxean ez zen argirik ikusten. Kameraren inguruko pentsamendu ilunak barbarka bueltatu zitzaizkion. Aitarekin hitz egin beharko zuen, akaso? Baina ba ote zuen aita horrek bere alabarenganako inongo kontrolik? Gaua kanpoan pasa zezakeen inongo arazorik gabe, etxetik alde egin zezakeen ageriko ondoriorik gabe... zer espero zitekeen horrelako aita batengandik? Joana belarritik hartu eta kamera itzularaziko ziola? Hobe zuen esperantza hori baztertu. Berak egin beharko luke zerbeit. Eta azkar.

Momentu horretan bertan motor baten soinua entzun zuen. Bukatuta ez zegoen arren, zigarroa bota eta zanpatu egin zuen. Elizaren hormara itsatsita, ondo ikus zezakeen eszenatokia Goiok, iluntasuna babeslekutzat hartuta. Berak suposatu bezala, Joanaren lagunaren motorra zen bidea igotzen ari zena, eta ez zetorren bakarrik. Joana zekarren gibelean. Motorra etxe aurrean gelditu zen. Atariko argien pean. Mutilak kaskoa kendu zuen. Hark ere, Joanak bezala, ilea horiz tindatuta zuen, hori argia, ia zuria. Joanak ez zuen kaskorik, eta grazia handiz jaitsi zen motorretik. Haien hitzei ezin zien igarri Goiok, baxu samar hitz egiten baitzuten, zurrumurruka. Berehala berriketa utzi eta elkarri muxuka hasi ziren. Pare bat astinduren ostean, mutilak motorra piztu eta alde egin zuen, kaskoa besoan zintzilik.

Joanak aterantz jo zuen. Aurreko eguneko arropa bera jantzita, poltsa ere berarekin zeraman. Bertan ote zegoen kamera oraindik ere? Joana etxean sartu zenean erlaxatu egin zen Goio. Hura ihesaldia hura! Hogeita lau ordutara ere ez zen iristen! Fundamentuzko eskapada, bai horixe. Goiok bere golkorako egin zuen barre. Berri onak ziren horiek berarentzat, bikainak egia esanda: tarte labur horretan ez zegoen kamera saltzeko denbora askorik, are gutxiago diru hori gastatzeko. Eta gainera, Joana eskura zuen orain, berrogei metro eskasetara. Umekeria hori laster konponduko zen. Konponduko zuen.

Ez zituen oinak eta eskuak sentitzen, eta lurrari pare bat ostiko eman zizkion. Bizilagunen etxera deitzera ausartuko zen? Ez zen hura momenturik egokiena, apika. Joana ailegatu berria, aita ernegatua. Hoberena urbanizazioko tabernara jaistea izango zen. Ez zegoen presarik. Harainoko paseoak on egingo zion, zer esanik ez bertan hartuko zuen zerbezak. Eta handik bueltan, ikusiko zuen.

Taberna leporaino beteta zegoen; telebista handian futbola. Zalea ez zen arren, gustura jarraitu zituen norgehiagokaren hamar minutu, zerbeza bat edaten zuen bitartean. Tarteka, beren seme-alabekin zeuden aitei erreparatu zien, batek futbolinera jokatzen zuen bi alabatxorekin. Bere burua horrelako egoera batean irudikatu nahian. Ez zuen lortu. Garazirengan pentsatzen, etxerako bidea hartu zuen berriro. Azkar egin zuen, hotzak kitzikatua. Ez zen apenas elurrik geratzen. Bizilagunen etxe paretik pasatzerakoan, bertara sartzeko ideia baztertu zuen. Ez zen momentua. Berandu zen. Bihar, eguzki argitan... Bazekien aitzakia merkeak baino ez zirela horiek, baina benetan gatazketarako indarrrik gabe sentitzen zen. Ahalik etar gehien atzeratu ohi zituen mota horietako talkak. Azkenean, jakina, egoerari aurre egin beharko zion (beste erremediorik ez zeukan ere) baina bihar izan zitekeen momentu hori.

Lanpasean lehortu zituen oinak etxean sartu baino lehen, eta Garazi topatu zuen saloiko mahaian eserita, espantu aurpegiarekin. Bainuko txabusina zeraman oraindik. Eta mahai gainean, kamera zegoen. Nikon D70 dotorea.

Goio!

Garazi mahaitik altxatu eta gizonaren besoetan jausi zen.

Goio, non zeunden? Tipo nazkagarri hori etorri da, beheko bizilaguna. Atean jo duenean zu zinela pentsatu dut, giltzak ahaztuta zenituela, eta horrela jantzita ireki diot, baina ez zinen zu, gizon zahar hori zen... eta nik gonbidatu gabe sartu da etxera.

Etxera? –Goiok ingurua behatu zuen instintiboki eta emakumea lasaitzen saiatu zen. Mahaian eserarazi zuen. Bata bestearen alboan eseri zirenean kamera eskuetan hartzeko bulkadari eutsi behar izan zion.

Hau ekarri du, Goio, zure kamera. Oso gauza arraroak esaten zituen, ez nion apenas ulertzen. Garrasi egiten zuen, mehatxu egin nahi zuela zirudien. Eta zerion usaina..., ene, ardoa eta egur ustelaren usaina... nazkagarria.

Baina zer esan dizu? Eta zer egiten du kamerak hemen?

Hori da arraroena. Ulertu diodanez zuk eman omen diozu Joanari, ordain moduan edo ez dakit zer. Guardia Zibilari deituko ziola horrela jarraituz gero, hori esan dit, sinetsi dezakezu? Eta bazekiela Joanak gurean pasa dituela gau batzuk, eta alkohola eman diozula eta hori delitua dela..., horrelako barrabaskeriak bota dizkit, oiheri batean.

Sentitzen dut, Garazi, ni hemen izan banintz...

Baina arraroena kamerarena da. Ze zuk kargatzen utzi duzu gaur goizean, ezta?

Ez dakit ba... –Goio azkar pentsatzen saiatzen ari zen, entzuten ari zen dena prozesatzen–, baina berak zeukan?

Bai, bere alabari ikusi diola, eta alabak esan diola zuk eman diozula.

Nik eman? Baina nola!

Ni ere aho zabalik utzi nau, baina bestela nola lortu du kamera?

Ene, ba ez dakit, bururatzen zaidan gauza bakarra da akaso irekita utziko genuela atea gaur plastikoekin atera garenean. Hori da azalpen bakarra. Hortik olgetan geundela aprobetxatuta, Joana etxean sartu da eta zerbait lapurtzea otu zaio.

Zuk uste? Bai, zu atera zara azkena. Ba ez nau batere lasai uzten..., beldurra ematen du, ezta? Agian ez da etxean sartu den lehenengo aldia. Baina zergatik esango zion aitari zuk eman diozula?

Ba, ziurrenik aitak kamerarekin harrapatu duelako, eta zerbait asmatu behar izan duelako. Ez zuen lapurtu egin duela aitortuko, ezta?

Lasaitzen ari zen Garazi, pieza guztiek bat egiten zutela ikusita.

Eta zer egingo dugu orain? Arazoak izango ditugu gurean pare bat gau pasa dituelako?

Ez dut uste –Goio ez zegoen hain ziur baina–. Dena den, argi dago zer ez dugun berriro egin behar: neska horri etxe barrura pasatzen utzi eta atea irekita utzi alde egiten dugun bakoitzean. Bai, bai, bai... dudarik gabe. Baina hain izan da desatsegina. Ni txabusinarekin, erdi biluzik, eta gizon hori bere hats nazkagarriarekin, zuri buruzko gauza horiek esanaz... eta zu auskalo non! Non zeunden, Goio?

Urbanizazioko tabernara jaitsi naiz, zerbeza bat hartzera. Baina lasai, maitia, dena pasa da. Bueltan etortzen bada, ni izango naiz hemen. Ez da ezer gertatuko, zin degizut.

Emakumea besarkatu zuen, haren arnasketa erlaxatzen sentitu zuen arte, eta jarraian, tonurik alaiena erabiltzen saiatu zen:

Eta orain, afaria prestatuko dizut. Berdura-pure bero-bero bat, zer iruditzen?

Ongi da, pijama janztera igoko naiz ni.

Baina ez zen mugitu. Goiok sukaldera jo zuen eta handik Garaziren mugimenduak jarraitzen saiatu zen. Han segitzen zuen emakumeak, mahaian bere txabusinarekin, gertatutakoari hamaikagarren buelta emanaz. Kalabazina, porruak, patatak eta azenarioak, dena lerrokatu eta zuritzeari ekin zion Goiok. Ozen hitz egiten saiatu zen Garazi:

Neska madarikatua, imajinatu aitak ez duela harrapatzen, kamera saltzeko kapaza da Joana hori. Eta orduan bai egingo lizukeela putada galanta, lanerako behar duzu eta. Eta kostatu zitzaizunarekin...

Bai, eskerrak! Hobe buelta gehiagorik ez ematea, Garazi.

Bigarren patata zuritzen ari zen emakumeak kamera piztu zuela ikusi zuenean. Labana eskutik irristatu zitzaion. Ezer egiteko denborarik ez zegoen. Berdurei begira geratu zen, Garaziren mugimenduak, keinuak eta erreakzioa irudikatuz. Hor egongo zen, Garaziren begien aurrean, kameraren pantaila txikian, Joana alaia, Joana gazte eta begirada sarkorrekoa, non eta Goioren estudioan, norekin eta Goiorekin berarekin, besoa bere sorbalden gainean, biak irribarrez aspaldiko lagunen modura.

Tira. Azalpenak eman beharko zituen. Bai. Ez. Garazik entzungo zituen. Ulertuko zuen. Kontua ulergarria zen, azken finean. Ez hain konplikatu. Pitokeria bat. Ondo azalduz gero. Azkar pentsatu. Nondik hasi, nondik bukatu. Berriz hartu zuen labana, eta erdizka baino zurituta ez zegoen patatari heldu zion. Saloitik, hitzik ez. Etxeko jaunak erabaki bat hartu beharko zuen. Eta azkar egin. Bai. Ez.

Zer nahiago duzu, laztana? Kalabaza ala kalabazina?

Isiltasuna berriro ere. Soinurik ez. Gaez tinpanoak urratzen zituen huts bera.

Kalabazina aukeratu zuen.

Igeri egin

Abuztuaren hasieran heldu ziren irlara. Dena gogoratzen zuten bezalaxe agertu zitzairen: terrazak mukuru, portuko belaontzi dotoreak, turista britainiarren alkandorak. Eta hala ere, haiek ez ziren ordukoak: orain farmazia, guardiako medikua, kolunpioak eta itzalpea ondo lokalizatu behar zituzten oporraldiari lasaitasunez ekin aurretik.

Orain haur txiki bat zuten.

Hamabost hilabete, bere bigarren uda, oraindik ez zebilen oinez.

Alokatutako duplexaren eskailerak zerbaitekin blokeatu behar izan zituzten hara sartu orduko, oinez ibili ez arren lau hanketara abiadura harrigarritz mugitzen baitzen haurra. Maleta handi bat kokatu zuten behin-behinean. Gizonak zerrenda bat egin zuen –entxufeak estaltzeko tapak, eltxoentzako tranpak, zerealak, ur minerala, barazkiak, okela, arrain eta fruta freskoa–, eta supermerkatu baten bila abiatzen zen bitartean, emakumea etxetik zekartzaten purea berotu eta umeari ematen saiatu zen. Gero, umea bainatu zuten –hegazkinean botaka egin zuen eta oraindik arrastoak geratzen zitzaizkion paparrean–, pijama jantzi eta amaren titiari lotuta lokartu arte itxaron zuten.

Orduan afaldu zuten, hamarrak pasatxo, pizza lehor bat, eta oporraldia zabaldutzat eman zuten.

* * *

–Igeri egitera joango naiz. Txikitxoarekin geratuko zara? –galdetu zuen emakumeak. Hondartzan izanagatik, txanoa zeraman, eta betaurrekoak.

–Jakina, zoaz lasai.

Harean zulo bat egiten ari ziren. Umeak izpi ultramoreetatik babesteko kamiseta zeraman, gogoratzen zuen bakoitzean atzaparkada batez kentzen zuen txanoa, eta masailak eta sudurra kremaz estalirik.

–Segi ba! –esan zion gizonak berriro, emakumea, eskuak gerrian paratuta, eguzkitakoaren peko eszenari begira geratzen zela ikusita.

Azkenean, atzera begiratu gabe, itsasoan sartu zen, poliki baina zalantzati ibili gabe. Abuztua, epel zegoen ura ordurako. Gizonak bi segundoz bereizi zuen begirada umearengandik bere emaztearen ipurmasail gogorre so geratzeko.

Haurdunaldi osoan zehar igeri egiten jarraitu zuen, baina bestelako entrenamendua baztertuta zuen ordutik. Erditu eta gero okerrago izan zen. Ariketa fisiko oro debekatu zioten. Umetokiaren prolapsa. Ez zen broma. Ebakuntza-gela. Errehabilitazioa. Urtebete baino gehiago igarota, ariketa suabera bueltatzen ari zen pixkanaka. Pilates. Hipopresiboak. Orain, igeriketa ere bai.

Elitezko kirola faltan hartzen bazuen, ez zion inoiz halakorik adierazi. Umea zuen orain ardua bakarra. Atzean geratuak ziren bidaiak, txapelketak, entrenamenduak, sufrimenduak, lesioak, dietak. Eta, perspektiba apur batekin, argi geratzen ari zen hura momentu egokia zela umea izateko, birritan joko olinpikoetatik kanpo ozta-ozta geratu ostean, zaila baitzen oso, bere adinarekin, hirugarren aukera batekin amets egitea.

Orain haur txiki bat zuten.

Eta haur txiki hori harek jaten ari zen.

–Baina zer...? Utzi hori!

Hamaiketako eskuetatik kentzen ziola ikusita, negarrez jarri zen haurra. Gizonak besoetan hartu zuen, sudurra bere sudur puntarekin igurtzi zion askotan egin bezala, baina horrek are gehiago haserretu zuen umea.

–Tira, goazen buelta bat ematera.

Besoetan hartuta itsasorantz abiatu zen. Birritan egin behar izan zuen atzera txanoa berreskuratzeko. Olatuen marmarrak beldurra eragin zion umeari eta berriz jarri zen negarrez.

–Jexux, petral samar gaude gaur.

Umeak, sorbaldetan jarrita, barre egiten zuen orain, inguruko bainulariekin dibertituta.

–Abisatu ama ikusten baduzu, ados? Uretan dago, hor.

Baina ez zuten ikusi.

Paseatzeaz laster nekatu zen, eta gainera ez zegoen lasai poltsa zaindu gabe zegoela jakinda. Toallara itzuli ziren, eguzkitakoaren pera. Nola desbideratu umearen arreta, harek gehiago jan ez zezan? Jostailutxo bat atera zuen, plastikozko olagarro bat. Erlojuari begiratu zion, bazkaltzeko ordua izan zitekeen txikitxoarentzat. Baina hobe zen emakumeari itxarotea horretarako. Ura eskaini zion haurrari. Berritara begiratu zuen ordua. Kalkulatu zuen hogeitazko hogeita bost minutu zeramala emakumeak uretan. Ez al zen gehiegitxo? Bere txano gorria

antzematen saiatu zen beste behin, uretan olgatzten ziren guzti horien artean. Ez zuen ezer ikusi. Bazekien denboraren nozioa galtzen zuela uretan, baina nekadurak jota egon behar zuen ordurako, entrenatu gabe hainbeste denbora igaro ostean. Bazitekeen arroken artean atsedena hartzen egotea ere, baina kasu horretan jakin beharko luke umearentzat bazkalordua zela.

Gaileta bat eman zion. Harearekin ondo estali eta ahora eraman zuen umeak. Ez zuen irenstea gelditzerik izan eta umeari egiten uztea deliberatu zuen. Zutik jarri zen, eskua bisera gisa erabilita. Txano gorriaren arrastorik ez. Umea negarrez orain.

–Gose zara, ezta? Tira, tira, bazkaria emango dizut.

Adurzapia jarri, hareaz eta lerdez betetako gaileta kendu eta termoa zabaldu zuen. Umeak ahoa itxita mantendu zuen: ez zuen purea nahi, gaileta nahi zuen.

Geroz eta urduriago zegoen gizona eta ez zekien umeagatik edo emakumeagatik ote zen. Berriz altxatu zen, umea hareaz betetako gailetarekin utzita, emakumea hautematen saiatzeko. Berriz eseri zenean, purea toallan barreiatuta zegoen.

* * *

Lau urte ziren elkar ezagutzen zutela. Emakumeak triatloi proba batengatik zegoen gizonaren hirian. Olinpiaden aukera bizirik zegoen artean eta emakumeak ez zuen maitasun istorioetarako astirik. Baina gizonak ez zuen etsi. Bera hasi zen emakumea bisitatzen, txapelketetara laguntzen, beharrezko sostengu emozionala eskaintzen.

Bigarren olinpiadetatik kanpo geratu zenean, depresiotik gertu egon zen emakumea. Orduan proposatu zion gizonak berarekin bizitzera etortzea. Gizonak ezin zuen hiria utzi, justu orduan hartua zuen aitaren enpresaren ardura. Emakumeak, ordea, kirol babesletzaren negozioa martxan jar zezakeen, bere erretirorako beti buruan izan zuen irtenbidea. Baina emakumeak ez zuen argi ikusten, benetan hura al zen erretiratzeko unea?

Orduan haurdun geratu zen. Eta etortzekoa zen ume horrek bizitzak ordenatu zizkien. Emakumea gizonaren etxera mugitu zen. Ezkondu egin ziren, ospakizun handirik gabe. Irlara etorri ziren aurreneko aldiz, ezkonbidaia. Orduan ere, uretan igaro zuen emakumeak oporraldiaren zatirik handiena.

Haurdunaldian suabe entrenatzen jarraitu bazuen ere, negozio berria planifikatzeari ekin zion hiri berrian emakumeak, goragaleekin. Gizonak geroz eta ordu gehiago ematen zituen enpresan, ozta heltzen zen etxera afaltzeko garaiz. Bigarren hiruhilekoko ekografiara huts egin zuen. Bitartean, sabel puztuarekin, korrika egitera ateratzen zen emakumea, bizikletarekin

hogei kilometro baino gehiago egiten zituen, igerilekura egunero joaten zen. 31. astean uzkurdurak hasi ziren arte. Hor amaitu zen kirola. Erditzea bi hilabeteko aurrerapenarekin gertatzea posible zen, eta batere desiragarria ez. Atsedena. Etxean bakarrik igarotako makina bat ordu. 38. astean umea heldu zen arte. 48 orduko erditze-lanaren ostean. Forzepsak. 3. mailako urraketa. 16 puntu hankartean. 4 kiloko mutiko bat.

* * *

Umea aulkitxoan jarri, toalla bola bat eginda poltsan sartu, dena batu eta harean barrena aurrera egiten saiatu zen gizona, eguzkitakoa besapean. Apenas entzuten zituen umearen negarrak orain, burrunba zuen belarrietan. Ezin seguru egon, baina hiru ordu laurden ziren emakumea igeri egitera atera zenetik. Ordubete akaso. Hala azaldu zion sudurra zurituta eta ilea hori zuen sorosleari. Emakumearen itxura eta janzkera ere deskribatu zizkion bere ahotsa ez zen beste ahots batez. Walkie-arekin hitz egin zuen ilehoriak, eta gizonari lehen sorospenetarako erabiltzen zuten etxetxoan itxoiteko eskatu zion. Gizonak ez zion kontra egin. Aulkitxotik tiraka, eguzkitakoa oraindik besapean, izerdi patsetan heldu zen hara. Kanpoan, sorosleen arteko elkarrizketa urduria. Mugimendua. Beste gizon bat sartu zen, ura eskaini zion. Lasaitasun hitz batzuk saiatu. Txalupa laranja bat seinalatu zion, emakumearen bila zihoazen. Berriz geratu ziren bakarrik, abandonatuta. Beste gaileta bat eman zion umeari, ez zeukan besterik. Ezin titia eskaini. Pozik zegoen hala ere mutikoa, buila mordo batekin jolasean.

Beste sorosle bat sartu zen, zaharragoa, hondartzako gainbegiralea, esan zion. Kostatu zitzaion gizonari elkarrizketa jarraitzea. Protokoloak aipatu zituen, helikoptero bidezko laguntza.

—Etxera joan nahiko duzu, ezta? Edozer gauza dakigunean deituko dizugu, egon lasai. Etxera eramango zaituztegu? Ez? Seguru zaude?

Bai, seguru zegoen. Berriz jarri zuen umea aulkitxoan eta, eguzkitakoa besapean, auto alokatura jo zuen, itsasorantz begiratu gabe.

* * *

Zirt edo zarteko pertsonatzat zeukan bere burua, presiopean lan egitera ohituta. Baina arratsalde hartan, duplexera ailegatu eta umeak, gosetuta, negarrari ekin zionean enegarrenez, geldirik geratu zen sukaldearen erdian, hurrengo pausoa zein izango. Mutikoak sandaliatik egiten zion tira, altxatu nahi zuen, baina gizona ez zen mugitzen, ez zion semeari begiratu ere egiten.

Emakumeari deitu zion, goiko pisuan egongo balitz bezala, eta berehala konturatu zen erraz gal zezakeela burua. Martxan jarri beharra zegoen. Umeagatik. Besoetan hartu eta ur apur bat

eman zion. Ohituragatik, iturriko ura eman zion, irlan zeuden bitartean botilakoa bakarrik emango ziotela adostuta bazuten ere.

Ez zuten adostuta. Emakumeak hala erabaki eta gizonak men egin zuen. Beti egiten zuten horrela. Emakumeak erabaki eta gizonak ulertu zuela konfirmatu. Arraina, astean bi aldiz. Ados. Dermatitis atopikorako krema, egunean bi aldiz. Ados. Txupetea, astean behin esterilizatu. Ados. Ez umea besoetatik heldu, prest dagoenean hasiko da oinez. Ados. Auto-estimurako, hobe motxilan eramatea eta ez aulkitxoan. Ados. Ekidin ditzagun ipuin sexistak. Ados. Utz diezaigun eskuekin esperimentatu dezala janariarekin. Ados.

Azkenean, emakumea zen hamaika mandamendu horiek betetzen zituen bakarra, triatletaren diziplinaz, gizonak geroz eta ordu gehiago pasatzen zituelako enpresan. Asteburuetan, amateur hutsa sentitzen zen, emakumeari egiten uzten zion, hari begira noizbait ikasiko zuen esperantzan.

Umeak trago luze bat hartu zuen. Ondo. Orain jateko zer edo zer eman behar zion. Baina purea prestatu beharra zegoen, emakumeak ez zituen farmazietako potito horiek onartzen. Madari bat zatitu eta erretiluan utzi zion. 28 gradu egongo ziren ordurako etxe barruan. Umeak bi zati murtxikatu zituen gogo handiz eta segituan dena bota zuen: hartutako ura zein madaria. Iturriko uragatik izango zen? Edo gaixorik zegoen aurretik, abioian botaka egin zuenez?

Umea aulki altutik jaitsi, gonbitoa garbitu, umeari ura eman (botilakoa), pardela aldatu, arropa aldatu, termometroaren bila joan, termometroa besapean jarri, termometroa lurretik jaso, berriz besapean jarri, telebistan marrazki bizidunak bilatu, zazpi minutu itxaron umearen besoak immobilizatuz eta bere garrasiak jasanetz, eta azkenean ikusi zuen: 37,6º. Ez zen asko. Edo bai?

Orduan, ate ondoko altzarian utzitako telefonoak gauzarik ikaragarriena egin zuen: jo egin zuen. Bazetorren, beraz, albistea. Ume beroa besoetan, hara abiatu zen korrika bizian.

Prest ote zegoen? Bai. Ez. Moteldu zuen pausoa. Erantzutera ausartuko zen? Bai. Ez. Esku dardaratia telefonotik oso gertu zuenean, oharra ikusi zuen: post-it hori bat, maitasun adierazpena, emakumearen idazkera karratua, tinta urdina, bihotz bat.

Askotan egiten zuen emakumeak hori, maitasun oharrak utzi, komuneko ispiluan, atean. Gustuko zuen hori gizonak. Baina haurra jaio orduko, egiteari utzi zion: astirik ez. Eta gaur, hain justu, berriz egitea bururatu zitzaion, atea itxi aurretik diskrezioz ohar hori utzi, plurala erabiliz oraingoan, maite zaituztet. Aurreneko aldiz.

Kasualitatea zen. Ez. Bai.

Premonizioa. Bai. Ez.

Premeditazioa. Ez. Bai.

Denbora geldi orain. Telefonoa jo eta jo. Txirrina nazkagarri hura. Premiarik ez gizonak ordea. Zertarako. Esango ziotena ondo aurreikusten zuen: ez zegoela emakumearen arrastorik, bila jarraituko zutela, helikopteroa bidean, polizia laster etxean.

Umeari begiratu zion, begiak gorri zituen, goibel zirudien, deshidratatuta egongo zen seguru, gosetuta eta gaixorik.

Lan handia zuen aurretik.

Festa gonbidatuak

Patricia eta MJ sukaldean daude, afaria prestatzen. Etxe berean bizi arren ez dute egun osoan elkar ikusi. Miraria! esango du Patriciak. Bakoitzak bere ordutegia du, hori da arrazoi miraritsua, bere biorritmo propio eta finkoak, eta hauxe da biorritmo propio eta finko horiek bat egiten duten eguneko lehenengo momentua: afari ordua, hura prestatu eta jateko abagunea.

Patriciak nahiago du goizean lan egitea, lehen argi laruarekin. Zazpitan jaiki, laranja pareari zukua atera, edalontzian vodka apur bat gehitu, eta horrela hasten da bere eguna. Trago on batekin. Fundamentuarekin. Egun produktiboa baldin badu ez du vodka iluntzera arte berriz probatuko: lanaren zurrunbiloan emango ditu orduak, mundua eta infernua eta vodka botila ahaztuta. Egun kaxkarretan, ordea, sarri joko du botilara, inspirazio bila-edo. Egun horietan disimuluz egin ohi ditu edari-altzarirainoko bidaiak, MJ ohar ez dadin. Baina MJ konturatu ohi da. Nola ez. Laster ezagutzen ditu Patriciaren pausotxo errudunak eta vodka-karen tanta-jariatze kikildua. Ez zaio gustatzen baina ohitzen hasia da nonbait. Beste aukerarik ba al du?

Berak nahiago du arratsaldea: bazkalostea da bere momentu doia. Beraz, goiza erlaxatzeko erabiltzen du, bere burua kokatzeko, berak esaten duenez. Goizero-goizero New Hopera gidatzen du bere auto zaharra, 1948ko Ford beltz traketsa, eta esnatu berria den herrian The New York Times erosten du. Egunkaria eskuetan, kafea hartuko du kale nagusiko kafetegi txukunean, albiste guztiak xeheki irakurri. Eguneko albiste bitxiak azpimarratu egiten ditu, gero Patriciari erakusteko, biek batera komenta ditzaten. Honengatik ez balitz, Patriciari mundua oharkabean pasatuko litzaioke, Pennsylvaniako isolamendura ongi egi ohitzen hasia da eta.

Bazkaltzeko orduan itzultzen da etxera. Sandwich bat jan ohi du, ez besterik, eta orduan bai, lanean sartzen da buru-belarri, bost orduz-edo, Patricia, bere laneguna bukatutzat emanda, altzariak diseinatzen dedikatzen den bitartean. Altzariak diseinatu dirua irabazteko kapaza balitz ez luke beste liburu alurik idatziko, esaten du, aurpegi serioz, bere zirriborro-kaieran sartuta dagoenean. Baina hori ez du inork sinisten, are gutxiago Patriciak berak.

Biak dira idazleak, eta maitaleak, eta emakumeak. MJK haur eta gazteentzako literatura idazten du batik bat. Diru ona egiten du, baina ez da Pat bezain famatua. Pat famatua dela esan baitaiteke. Zelebridade bat. Bere nobela bat zinemara eraman du nork eta Alfred Hitchcockek. Bigarren bat zinemarako bidean dago. Frantses batek zuzendu behar du oraingo honetan, René-ez-dakit-zer batek. European, dio Patek gehiegi edan duenean, kaletik gelditu eta autografoak eskatzen dizkirate. Idazle estimatua naiz European, bai horixe. Europako unibertsitateetan niri buruzko mintegiak antolatzen dituzte. Baina herrialde puta honetan beti izango naiz Hitchcocken film hura inspiratu zuen andere bitxia.

Tomate entsalada ari dira prestatzen afarirako, plater azkar eta praktikoa. Modenako ozpinarekin. Luxu bat garai honetarako. 1961eko udaren hasieran gaude. John F. Kennedy da Estatu Batuetako presidente berria. Patriciari ez zaio irlandar hori gustatzen, ez da haren begiez fidatzen.

–Faltan botatzen al dun New York? –galdetu dio MJk Patriciari, tiraderako labana egokiena aukeratzen duen bitartean.

–Ezta pentsatu ere –erantzuten du berak, hausnartzeko unerik hartu gabe.

–Neuk ere ez –dio MJk, baina ez du oso konbentziturik esan; xafla distiratsuari begira dago.

Baratxuria mozten ari dira orain. Patriciak atzamarrak sudurrera gerturatu dizkio bere neskari. MJk, asko pentsatu gabe, ahoan sartu ditu Patriciaren atzamarrak. Gustura milikatu ditu. Baratxuria gustuko du. Eta baita bere neskaren atzamarrak ere. Gero musu eman diote elkarri. Xamurki hasieran, bortizkiago gero. Bietako inork ez du musua urrunegi eraman nahi –azken finean, goseak dira biak– baina gustura daude horrela. Patriciak aldaka laztantzen dio. Zirkuluak marrazten dizkio praken gainetik, ipurdi aldean. MJk, ezin eutsiz, koxka egin dio besteari beheko ezpainean. Patricia ez da kexatu. Emakume gogorra da.

Horrela egon dira ezin zehaztu daitekeen tarte batez, bata bestea milikatzen, baratxuri usaina sudurretik kendu ezinean. Zarata batek beren bakartze goxotik atera dituen arte. Kanpotik datorren zarata. Zerbait apurtu dela adierazi nahi duen zarata. Banandu eta, ezer esan gabe, harrabotsa etorri den lekura zuzendu dituzte euren begiradak. Sukaldeko leihotik bestaldera Jimmyren aurpegi gorritua ikusi dute, begiak ezin zabalago. Jimmy gaixoa. Loreontzi bat bota eta puskatu du, eta hala ere ezin da mugitu. Han dago, bi emakumeei begira, sinesgogortasunaren eta beldurraren arteko keinua aurpegian, oinak lurrez zikindurik. Patriciak eskua luzatu eta mutikoa agurtu du, adeitsuki –distantzia egokiarekin, umeak onargarriak zaizkio–, eskumako eskua oraindik MJren gerrian paratuta. Orduan bai, umeak erreakzionatu eta, Patriciaren agurra itzuli gabe, leihotik alde egin du, erreperidera doan bidexka hartuz, korrika bizian.

–Ama, ama, bi emakume elkarri musuka! Zergatik, ama, zergatik? –ari da esaten Patricia, umearen ahots zorrotza imitatuz; eta harraska gaineko armairutxotik platerak eta edalontziak hartzen hasi da, lasai asko.

MJ txuri dago. Ez da mugitzen. Berak ere hartu du sustoa mutila ikustean. Ez zuen halakorik espero. Ez leku bakarti honetan, bizilagun urrunen parajea, non eta Pennsylvaniako azkeneko konderrian. Bere sukaldean, bere leiho pribatuan. Baina hala jazo da. Beste behin ere gertatu zitzaion. Agian behin baino gehiagotan, baina gogoratzeko modukoa izan zen hura. Gazteago zenean. New Yorkeko bere apartamentu ohian: musu eman zion garaiko bere

neskari –Manhattango ospitale bateko erizain argala– etxeke atean –errutinazko agur bat, ez besterik–, eta bigarren solairuko bizilagun zalapartatsuak, atso zahar higuingarriak, harrapatu egin zituen. Hura momentu itsusia, hura. Handik aurrera atsoak begiz jotzen zituen bakoitzean bastoia goratu eta halako hitz purrustada bat botatzen zien grezieraz. Ezin zuten ezer ulertu baina haserre zirudien atsoak. Orduan ez zitzairen inporta, horrela esaten zioten elkarri behintzat, barre egiten zieten atso greziarraren madarikazioei eta lagunaren aurrean ere kontatzen zuten, guztiek barre egin zezaten.

Baina gaurkoa desberdina da, Jimmy desberdina delako. Umetxo bat besterik ez. Umetxo alegera, zintzoa. Pekaz beterik du sudurra eta beisbolean jolasten ematen du eguna, bere oporrak disfrutatzen. Inozentea da. Hori batez ere. Agian bere liburuak irakurtzen ditu –edo irakurtzen dizkiote– lokartu baino lehen, igeri egiten ikasten duen pandaren istorioa, esaterako, edota mantangorri kuxkuxeroarena. Beldurtuta egongo da. Koitadua.

–Traumatizatu egin dinagu, ezta? –Pat dibertitu egiten da horrelako gauzekin, ezin eutsi.

–Ez dun barregarria, batere ez –MJ adoretu egin da–, beldurtu egin dinagu mutikoa. Agian berarekin hitz egin beharko niken.

–Berarekin hitz egin? Niregana sentitzen dudan erakarpen eutsiezinaren berri eman behar dion, ala?

–Ez, baina...

–Traum und Trauma –esaten du Patriciak histrionikoki, alemanez botatzen dituen eta itzultzeko lanik ere hartzen ez duen esaldi horietako batean, afera itxiztat ematen duen seinale.

MJk ez daki zer esan, ez Patriciari, ezta Jimmyri ere. Baina aztoratuta dago. Ez du ia hitzik egin afari osoan. Patriciak, antza, guztia ahaztu du lehenengo ardo txuri koparekin. Asteburuan bisitan izango dituzten lagun batzuei buruz hitz egiten du, animoso. Psikiatra bat eta bere senarra. Hirian bizi den jende jatorra. Europarrak, jakina. Martxotik ez ditinagu ikusi. Batera afaldu geninan jatetxe espainiar horretan, gogoratzen? Ziur baietz, gogoratu paella hura. Eta ardoa, jakina! Ardoa gogoratuko dun! Ez? MJk nekez jarrai ditzake Paten hitzak. Jimmy txikiarengana joaten zaio burua nahi gabe. Zortzi bat urte izango ditu. Zazpi agian. Bidegurutzea baino lehen bizi den baserritar bikotearen iloba da, Stackhouse jaun-andreena, berarekin uda pasatzen ari dena. Non dago Jimmy orain? Bere aitona-amonen besoetan? Bere logelako izkina ilun batean? Zer ari da pentsatzen? Zer ari da kontatzen?

MJk egunero topatzen du mutikoa, herrirako bidean edota herritik bueltan. Adierazi gabeko hitzordua dute goizero, eta bietako inork ez du hutsik egiten. Lagun arteko hitzordu bat da.

Etxe aurreko lorategian egon ohi da Jimmy, aitonarekin beisbolean jolasten edo bere salgai propioekin. Dendari fina da Jimmy. Kartoi kutxa bat bide ertzean jarri eta denetarik saltzen du hor. Bidetik jaso dituen harritxoak, txotxekin eraikitzen dituen figura zakar samarrak edota etxean –amonaren laguntzaz, akaso– egiten duen limoi zukua, paper baso txikietan banatuta. MJ bere autoarekin umearen aurretik pasatzen denean klaxona jo ohi du eta mutilak eskua luzatzen du bera agurtzeko. Gehienetan MJ errukitu, autoa gelditu eta umetxoaren denda inprobisatura gerturatzen da, egun horretan saltzen duen edozer gauza eskuratzeko. Izan ere, bide bakartia da New Hopera daraman hori eta bezero potentzialen eskasia arazo larria da Jimmyren negozioarentzat. Horrexegatik MJk, bezero preferente horrek, paper-txoriz, marrazkitxoak eta kolorezko harriz beterik du Ford zaharraren atzeko eserlekua. Zer duzu gaur, Jimmy? Gaur harriak margotu ditut! Hogei zentabo txiki hauek, andereño, hogeita hamar handiak.

–Ohera? –esaten du Patriciak, afarian erdizka gelditu den ardo botila bukatu dutenean.

–Goazeman –esan du MJk, eta sofatik altxatu dira biak aldi berean.

Hurrengo egunean MJk egiten duen lehenengo gauza Jimmyk apurtutako loreontzia jasotzea da. Bart erabat ahaztu zitzaion. Dena bota du zakarrontzira: zeramika zatiak, lur beltza, eta bertan aspertuta bizi zen geranio zaharkitua. Hireak egin dik, geranio. Erratza pasa du, gorabeheraren zantzu guztiak desagerraraziz. Ford beltza arrankatu eta Jimmyren aitona-amonen etxerantz abiatu da gero. Ziur jo du ate gorrian, bere autoa etxe aurrean trakeski aparkatu ostean.

–Egun on, Stackhouse anderea, Jimmy etxean al da? –galdetu dio atea ireki dion emakume ileurdinari, Jimmyren amonari.

–Oraindik ohean da, atzo oso nekatuta zegoen eta ez dut oraindik esnatu nahi izan. –MJ emakumearen begirada aztertzen ari da, beldur edo mespretxuaren bila, baina emakumea beti bezain irribarretsu agertu zaio–. Zer behar duzu, andereño? Ez zen ba Jimmy bihurrikerietan ibiliko zure etxe inguruetan?

–Ez, ez, ez da hori. Zintzoa da zure Jimmy, oso zintzoa. Opari bat eman nahi nion, besterik ez... –MJ bere poltsan hasi da bila–. Nire ipuintxo bat, gustuko izango duela pentsatzen dut.

–Manda Pandak igeri egin nahi du –irakurri du amonak motelki, urgentziaz eta oso aspaldi irakurtzen ikasi zutenen antzera, MJk ematen dion liburua harrapatuz–. Mila esker, andereño, baina ez zenuen zertan...

–Gustuko badu, beste bat ekarriko diot... beste egunen batean –moztu dio MJk.

–Tira, ez dakit zer esan...

–Ez esan ezer, anderea, egun on eta goraintziak Jimmyri!

–Egun on zeuri ere, bai.

Amonak bere etxeko atea itxi duenerako autoan bueltan da MJ. Arnasa hartu du. Irratia piztu. Amonak ez daki ezer. Argi dago ez dakiela ezer. Ez du sukaldean jazotakoaren berri. Jimmyk ez dio hitz erdirik ere esan. Mutu ailegatu zen etxera bart, eta mutu sartu ohean. Ikusitakoa ametsa zela bere buruari errepikatuz. Dagoeneko konbentziturik. Ala ez? Dena ote daki amona zaharrak eta horregatik ari ote da umea ezkututzen, oraindik ohean dela esanez? Bere Jimmy gaixoa degeneratu horiengandik urrun mantendu nahian, noski. Hori ere posible da oso. MJren Ford beltza ikusi eta logelan sartu du umea. Gera zaitetz hemen, autoa igaro arte. Ez mugitzeko esan dut, Jimmy.

Baina adeitsu egon da emakumea MJrekin izan duen solasaldi laburrean, irribarrea aurpegian zintzilik uneoro. Aktore ona ote da Jimmyren amona? Edozer gauzaren gainetik itxurak mantendu nahi dituen horietako bat? Baina zertarako disimulatu behar du emakumeak? Zertarako adeitasunez tratatu, gorrotoa eta aiherra besterik sentitzen ez badu?

Halako galderak buruan bueltaka pasatu zaio goiza, apenas dastatu du bere kafea eta apenas jabetu da eguneko albiste eta iritzi artikuluez. The New York Timesek ez du bere kuriositatea pizten. Urrun, oso urrun sentitu du New York hona ailegatu zenetik lehenengoz. Gero hiru kilo banana erosi ditu eta behar zituen beste jakiez ahaztu da.

Arratsalde partean, Patricia sukaldean sartu denean MJ topatu du, mantala jantzita eta oso lanpetuta.

–Utzidan asmatzen, banana pastela egin behar dun? Ez dun izango!

MJK baietz diotso buruarekin eta irribarre zabal batekin, aspaldian egiten ez duen eta Patriciai hainbeste maite duen pastel hori gaur egin behar duela. Irinez zikindurik du sudurra eta Patriciai ez dio ezer esaten, horrela gustatzen zaio, ume kutsu horrekin.

–Banana pastela... –esaten du bere baitarako– hau ospatu beharra zegon.

Patricia, mimo handiz, bi martini prestatzen hasi da MJK labea pizten duen bitartean. Patek kasik egunero topatzen du zer ospatu, eta zerbait ospatzeko ez dago martini ederra bezalakorik. Gaur tomate entsalada jango dute berriro, besterik ez baitute etxean, baina hori bai, postrea kolosala izango da: banana pastela, MJren espezialitatea eta Paten gozokirik begikoena.

Ohean gelditu da MJ hurrengo goizean. Ez dago lotan, ezta nekatuta ere, baina izugarri alfer sentitzen da, hodeien atzetik irtetera animatzen ez den eguzkia bezain alfer edo areago. Patriciaren estudiotik datorren Underwood zaharraren tak-tak-tak lasaigarria entzun dezake. Egun ona du Patek, tak-tak-tak etengabeko egun horietako bat. MJk ez, hori argi dago. Lehoia izan nahi zuen katutxoaren historia erdizka dauka, eta hor dago katua, ez aurrera ez atzera. Ahal izanez gero putzu batean itoko luke katutxo pinpirina. Hori bai amaiera zirraragarri... eta ustekabekoa. Ausarta balitz Patriciari eskatuko lioke laguntza. Zer egin dezaket katutxo honekin, Pat. Orain arte idatzitakoa erakutsi eta haren iritziaren zain geldituko litzateke. Baina ez da hain ausarta. Patriciak berak ez du inoiz lanean dabilen liburuaz hitz egiten, are gutxiago aholkua eskatzen. Baina, noski, Patricia zelebridade bat da, Hitchcocken filma inspiratu duen andere txit agurgarria, eta ez katutxo koldarrez idazten duen luma traketsa. Hala ere, Patriciak ez badu egiten, berak ere ez. Kontu pribatua da lehoi izan nahi zuen katu horren istorioa. Beraren eta katutxoaren arteko afera.

Azkenik altxatu da, eta ezer esan gabe etxetik atera. Irten baino lehen, ordea, sukaldetik pasa da. Pastel erdia gelditu zitzaien bart soberan, eta ez gutxi jan zutelako, baizik eta pastel handi handia prestatu zuelako, nahita. Trapu garbi batekin estali du goxokia eta gidariaren ondoko eserlekuan utzi du paketetxo desiragarria. New Hoperako bidea hartu du gero.

–Hemen zara berriro! –amonak ez du oraingoan bere harridura disimulatu.

–Egun on, andere. Jimmy esnaturik dago? –Bi ordu beranduago iritsi da gaurkoan, beraz ohean dagoela esaten badio ez du sinistuko eta bere susmo ilun guztiak egiaztatuta geldituko dira.

–Barruan dago, bere kaligrafia ariketekin. Ezer behar duzu?

Kaligrafia ariketak, bai zera. Jimmy egunero dabil kanpoan, gora eta behera, bere beisbol batearekin, bere patinekin. Eta gaur, kasualitatez, etxeko lanetan dihardu umetxo aplikatuak.

–Pastela ekarri diot. Eta zuri ere bai. Eta zure senarrari, jakina. Banana pastela. –MJk trapuz estalitako platera luzatzen dio.

–Banana pastela! Jimmy txoratu egiten du. Asko poztuko da, esango diot zuk ekarri duzula. Eskerrik asko, andereño.

Ez dio ezer eranstekeo betarik eman, atea itxi baitu MJren sudurretan. Arraroa da andrearen jarrera. Hotza eta beroa. Irribarretsua baina mikaztasun punttu batekin. Eta kaligrafiarena sinistu behar al du? Jimmy pekaduna bere eskua idazlumarekin trebatzen? Zaila egiten zaio imajinatzea, geldirik egon ezin daitekeen mutil horrengan.

Triste eta goibel egin du herrirako bidea. Jimmyrekin zuen harremana zapuztuta dago, argi ikusten du orain. (Gustuko zuen, arraioa, haren limoi-zukua, haren pekatxoak eta aurreko-hortzik gabeko irribarrea). Hori, kontua okerrera ez badao. Berria konderri osoan zabaltzen ez bada. Jendea mesfidati begiratzen hasten ez bada. Zeharka eta fidagaitz. Ezagutzen ditu horrelako begiradak. Egunkaria saltzen dion gizona, esnea etxeko ateraino ekartzen dien baserritarra, kafea eta saltxitxak prestatzen dizkion kafetegiko emakume lodia, Jimmy bera, haren aitona-amonak. Ez dira honetarako hiritik aldendu, ez horixe. Lasai bizi nahi zutelako egin zuten alde New Yorketik. Bizilagun greziarrik gabe bizitzeko, esaterako. Jatetxeetan mahai bat lortzearren gona jantzi beharrik ez izateko. Villageko taberna zuloetan gehiago ez ezkutatzeko.

Baina gauzak beti konplikatzen dira. Beti. Bere bizitzaren historia da eta ez dago ezer egiterik. Begirada maltzurak, fidagaitzak, beti. New Yorken, Pennsylvanian, edonon. Jaki-dendaren aurrean aparkatu du eta, Patricia eman dion zerrenda luzea eskuan, Fordetik atera da.

Arratsaldeko hiruretatik dabil Patricia sukaldean, jo eta ke afaria prestatzen. Afari berezia izatea nahi du. Askotan dituzte bisitak konderri honetako bihotzean bizi direnetik, hiritik autoz datorren jendea normalean, eta beti ahalegintzen da afari bikaina, ahaztezina prestatzen. Ermitaua bilakatzen ari ez dela frogatzeko-edo. Bere abildade sozialek bere horretan jarraitzen dutela, bai horixe. Gaur bisitan dituztenak britainiar senar-emazteak dira, psikiatra emakumea, abokatu gizona. Jende liberala. Patriciaren lagunak eta MJren ezagunak. Bazter guztietan ditu lagunak Patricia, eta guztiak gonbidatu behar ditu afaltzera gainera. Beste idazle batzuk, aktoreak, medikuak, kazetariak, sukaldariak. Gainera, bere maitale ohiak lagun bilakatzeko gaitasun sinesgaitza du emakumeak, eta askotan dituzte bisitan, asteburu oso baterako, “berrogeita hamahiruko udako affaire zoroa” edo “nigatik txora-txora eginda zegoen errubia titi-txiki hura”, besteren artean.

MJ ez da kasu hauetan jeloskor jartzen, ez, baina Patricia bezala egin nahiko luke. Kontaktua mantendu bere maitale ohiekin, afaltzera gonbidatu eta abar. Erizain argal hura, adibidez. Badira bi urte haren berririk ez duela.

Zazpitan ailegatu dira Laura eta bere senarra, hiritarrek mendira joateko jantzen dituzten jantziekin, leku eta giroarekin bat etorri nahian bere jatorri urbanoa nabarmendu besterik egiten ez dutenak. Etxea ikuskatu dute, bertan dauden lehenengo aldia baita, lorategia goretzi dute gero, eta lau martini edateko atzeko portxean eseri dira azkenean.

–Hau paradisua da, zoratuta gaude New Yorken bizi garenok –esan du Laurak lehenengo zurrupadarekin.

–Askotan esan dizut ba Ingalaterrara bueltatu beharko genukeela, Surreyko etxetxo

konpondu eta... –senarrak ahopeka eta mantso hitz egiten du, beldurrez bezala, eta bere azentu britainiarra ia komikoa da, gehiegizkoa MJren iritziz.

–Surrey! Falta zitzaiguna. Eta eguna behiak psikoanalizatzen igaro?

Bikote bitxia, dudarik gabe. Laurak gizon sorbaldak ditu, zabalak eta gihartsuak. Bere kontralto ahotsa edozein gela betetzeko gauza da. Bere senarra, Peter, txikitxo da, estua, eta ahots suabekoa, alboan esnatu nahi ez duen ume bat balu bezala. Laura beti kexaka dabilela dirudi, eta Peter bera kontsolatzen. Laura ez da ezerekin konformatzen. Peterrek mundua eskerronez ikusten du. Laurak jaka kendu eta bere gizonari eskuratzen dio. Zapatak bi mugimendu azkarrez kendu eta bere Peterren belauen gainean jartzen ditu oin izerdituak. Eraman handiko gizona, inondik inora.

–Euliak, euliak, euliak edonon. New Yorkek gauza onik badu, hori da: eulirik ez dagoela, bat ere ez.

Jangelara pasatu dira eta Patricia zerbitzari lanetan trebatzen hasi da. Arrain zopa hasteko. Freskoa benetan, nondik ekartzen dizute amuarraina, Pat? Fussilliak boloniar erara gero. A, Italia, oraindik lur horrekin txoratuta, ezta? Marrubi budina bukatzeko. Zoragarria, zer esan dezaket. Eta ardoa, ardo pilo. Laurak, Patricia berak baino gehiago edateko gai den emakume bakarria dirudi. Hala iruditzen zaio behinik behin MJri. Portxera bueltatu direnean, afaldu eta gero, bosgarren ardo botila irekitzera doaz. Peterrek edaten ez duela kontuan hartuta, bada marka gero.

–Badakizu azkena? –Postre garaitik badirudi Laurak Patriciaarentzat bakarrik hitz egiten duela. Peter eta MJ haien hitzak jarraitzera mugatzen dira.

MJk badaki zer datorren orain. Badakizu azkena? Bosgarren ardo botilarekin atera ohi diren kontuak: festa gonbidatu berriak nortzuk diren, nortzuk atera berri diren armairutik, nortzuk izan diren in fraganti harrapatuak. Hala izan zen haien azkeneko topaketa horretan, Sevilla jatetxean. Festa gonbidatuak gora eta behera. Eta niri zer axola, esaten dio MJk bere buruari. Hau agoantatu beharra ere. Suminduta sentitzen hasi da bosgarren botila hori ireki dutenetik. Konturatu da gainera bera ere gehiegi edaten ari dela, baina bere umorea, hobetu gabe, okerrera ari dela egiten bere borondatearen kontra.

Festa gonbidatuak. Horrela deitzen zaie, New Yorkeko argotean, Patricia eta bera bezalako emakume eta gizoni. Beraien homosexualitatea sekretuan daramaten “festa gonbidatuak” argitara ekartzea ohiko dibertimendua da nonbait Laura honentzat. Ez dakit zer argitaletxetako editorea berriki ezkondu eta bere apartamentuaren albokoa erosi du maitalearentzat, berarentzako lan egiten duen gazte gihartsu horrentzat, zer iruditzen zaizue.

–Gehiegizko lana, nire aburuz! –komentatzen du Patricia, irribarre batekin–. Bi giltza, bi ohe... gehiegi.

Badirudi berak ere gustuko dituela hau bezalako txu- txu-mutxuak, MJri sinestea zaila egiten bazaio ere. Begien distira batekin jarraitzen du behintzat psikiatraren hitz jario maliziatsua. Orain ezkontza atondu horietako baten berri ematen ari da plazer handiz. Ez dakit zer egunkaritako bi kazetari gazte. Kiroletakoa gizona. Kulturakoa emakumea. Normalak dira festa gonbidatu emakumezko eta gizonezko biren arteko ezkontzak. Estalki perfektua bientzat. Bakoitzak bere bizitza sekretuarekin jarraituko du lasai asko, eta familiakoek ez diete berriz galdetuko: eta? noiz ezkondu behar duk, tunante horrek?

–Erredakzioan festa bat egin diete, ezer susmatu gabe, kar-kar-kar. –Laurari aurreko hortzak beltz gelditzen ari zaizkio ardoaren erruz.

Baina nola enteratzen da emakume hau gauza hauetaz? Hobe ez pentsatzea. Bere pazienteek jakin beharko lukete ez dela fidatzeko modukoa. Besteen intimitateak ez bakarrik entzun baizik eta barreiatzea gustuko duela. Bereziki liluratzen dute bizitza bikoitza daramaten gaixoei, ez diren zerbaiten itxura eman behar dutenek. Agian berak ere bizitza bikoitza daramalako, edo eraman nahiko lukeelako. Interesgarria litzateke horretaz hitz egitea, esaguzu, Laura, zer dela eta “festa gonbidatuekin” hainbesteko interesa?

Goizeko ordu biak dira MJk ohera doala aldarrikatu duenerako. Bere sorpresarako, guztiek bat egin eta haiek ere ohera doazela diote. Mahaia jaso gabe, harrikoa egin gabe jo dute ohera. Laurak eta Peterrek beheko gelara, gonbidatuen gelara; Patricia eta MJk eskaileretan gora zain duten ohera. Zaila da esatea nor dagoen mozkorrako. Patricia gehiago edan du, dudarik gabe, baina bere erresistentzia paregabea da. Poliki igotzen dituzte biek eskailerak. Biluztu eta ohe gainean gelditzen dira, maindireak zabaldu gabe. Gaua beroa da. Aire itogarria. Ezin nuen gehiago agoantatu Laura alu hori, esan nahiko luke MJk, baina alferrik esango luke, Patricia jadanik lo seko dagoelako, zurrunga eta guzti. Hobe horrela. Gorroto ditu Patriciaren lagunak inguruko eztabaidak. Bere lagunak sakratuak dira. Patriciaekin dituen eztabaida guztiak gorroto ditu, egia esanda. Sutan jartzen dira biak, baina Patricia berehala pasatzen zaio, dry-martini bat prestatu eta lasai gelditzen da portxean eserita, zurrupaka. Bera, ordea, lur jota egongo da egun osoan, Patriciaren begietara begiratu ezinik. Hori ez da bidezkoa. Ez horixe. Horregatik, koldarra dirudien arren, hobe gatazka saihestea.

Ordu erdi darama ohean eta ez da lokartzen. Egarri da eta, aldi berean, sukaldera jaisteko nekatuegi dago. Beste bost minutu igaro dira, eta orain egarria eta beroa jasanezinak egiten zaizkio. Nola-hala bere gorputza arrastaka mugitzeko indarrak pilatu eta eskaileretan behera jarri da. Ur freskoak on egin dio eztairitik behera. Atzamarrak basoan sartu eta tanta hotzez zipriztindu du bularra, lepoa, aurpegia. Sukaldeko leihoa ireki du, kanpoan freskoago egongo delakoan, baina ez da hala. Haize izpirik gabeko gaua da. Berriz oherako bidea hartu behar

duenean zerbait entzun du gonbidatuen logelan. Gelditu egin da, hobeto entzuteko. Kexu bat dirudi, urrumaka dabilen emakumezko baten ahots etena. Saloitik gonbidatuen gelako atea irekita dagoela ikus dezake, baina barruan ilunegi dago ezer ikusteko.

MJ egongela zeharkatu eta aterantz gerturatu da, zaratarik egin gabe. Kostata, bere begiak barruko iluntasunera ohitu dira. Emakumearen kexua ez ezik, ohearen kexu metalikoa ere ailegatzten da bere belarrietara orain. Berehala ikusten duen bultoa interpretatzea lortu du. Peter bere emaztearen gainean dago, aldakari indarrez eragiten. Biak biluzik, maindirerik ez beren gorputzak estaltzeko. Harritzeko moduko postura da. Peter isilak, Peter koitaduak, lema darama orain. Eta nola gainera: bere emaztea ez da panpina indargea baino gizonaren eskuetan. Ulergaitza da emakumearen kexua, baina ez da isiltzen. Gizona, berriz, esfortzu handiegia ari da egiten ezer esateko. Maratoi-korrikalari baten moduan hartzen du arnasa. Izerdi errekatxo batek bizkarrean behera egiten dio, ipurdiraino. Ohearen kexua geroz eta frenetikoagoa da. Orain ulergarriagoa da Lauraren marmarra: gora, gora, gora... ari da esaten, geroz eta ozenago. Gora, gora... Gora? harritu da MJ.

Zehaztu gabeko denbora batez egon da zelatan MJ, egiten ari denaz ohartu den arte. Eskailerak igotzen dituen bitartean gorroto adierazkaitz bat sentitu du Peter eta Laura horiengatik. Zerri halakoak. Zergatik arraio ez dute atea itxi? Ikusle bila ari dira, ala? Alprojak! Haienganako nazka bere buruarengana ere bideratzen hasi da ohean, berriz ere Patriciaren ondoan kokatu denean, hipnotizaturik bezala ate horren aurrean gelditzeagatik. Zeren bila zebilen? Zergatik gelditu da ate horren aurrean Peterren ipurdiko izerdiari begira? Gustatu al zaio ikusi duena? Ez, arraioa. Eta hala ere han gelditu da, tentelduta bezala. Kontzentratuegia, ikusten zuena hain nazkantea egiten bazitzaion.

Ondorengo goiza lainotua esnatuagatik ere beroak bere horretan dirau. Hamarrak aldera Patriciak gosaria prestatzen hasi beharko lukeela dio, baina MJk, bere neska gerritik harrapatuz, ohean ordu bat gehiago atxikitzeko ahaleginak egin ditu. Hamaikak pasatxo dira eskailerak batera jaitsi dituztenerako. MJ beldur da. Bere begirada gonbidatuen gelara joango zaion beldur. Gaueko ikuskari beraren testigu izango den beldur. Badaezpada trakeski eta zalapartatsu jaitsi ditu eskailerak, Patriciak harrituta begiratzen dion bitartean.

Laura eta Peter esnaturik daude. Dutzatuta eta arropa garbi eta txuriekin jantzita. Patricia sukaldean gogoz saiatu den arren besteek ez dute gehiegi gosaldurik: ajearen errua. Patriciak txango bat proposatu du. Entusiasmoz proposatu ere. Picnica prestatu eta berak ezagutzen duen mendixka eder baten magalean jan dezakete. Erreka bat omen dago inguruetan, sargoria freskatzeko. Lauretarako bueltan izango dira, eta senar-emazteak ilundu baino lehen ailegatu daitezke hirira. Zer iruditzen?

Guztiek gustura onartu dute plana, MJk izan ezik. Buruko mina, dio, buruko min izugarria. Ardo larregi, badakizue. Bakarrik utzi dute, hortaz, sandwichak prestatu eta mendi botak

jantzi ostean. Ez dira ziurrenik oso urrunera joango baina MJk tarte baliotsua izango du berarentzako. Agur, agur, kontuz ibili gero. Ura edan, burua estalita ibili, sargori hau oso arriskutsua da eta.

Eta orain, bakarrik dagoela, zer egin dezake? Lorategia ureztatu? Liburuak ordenatu? Eta Jimmyren etxera joango balitz? Ezta pentsatu ere. Berriz ate joka hasten bada poliziar deituko dioten inpresioa du. Inpresioa baino gehiago, ziurtasuna. Izan ere, amonaren balizko gorrotoa benetako gorroto zurruna bilakatu da gauaren ostean. Ardoak zenbait gauza argiki ikusarazi baitizkio. Ardoak eta gaueko ikuskizun lizunak, agian.

Bere estudioan sartu da. Sukalde ondoan dagoen gelatxo ttattarrean. Erratz-gela bat da izatez, baina Patriciak espresuki diseinaturiko altzariei esker –mahaitxoa, apalak, aulkia, dena txikia, neurrira egin– estudio antza hartzen hasia da gela. Automatismoz, bere idazmakinarean aurrean eseri da, diziplinaren poderioz erraza egiten zaion mugimendu batez. Ez du igandeetan lan egiteko ohiturarik, baina atzeratu samar dabil lehoia izan nahi zuen katutxoarekin eta ez legoke batere gaizki kontu horri aurrerakada bat ematea. Orri zuria bere zirrikituan kokatu du, konbentzimendu handiz. Arnasa hartu du. AAAAAAAAAAAAAAAAAAAAAAAAAAAAAAA idatzi du atzamarraren mugimendu azkarraz. Gero:BBBBBBBBBBBBBBBBBBBB. Azkenik: CCCCCCCC- CCCCCCCCCC. Eta etsipenez jaitsi ditu besoak, burua teklatuaren gainean deskantsatuz. Igandea eta ajea, zer espero daiteke holakoetan?, esan dio bere buruari.

Kolpetxo batzuk entzun ditu orduan sukaldeko atean. Bueltan dira Patricia eta bere lagunak? Ezinezkoa. Agian Laurari orkatila bihurritu eta eguna bere sofán eserita igarotzeko planak egin ditu. Ez dirudi oso kirolari fina Laura horrek, ziur azakirten hutsa dela psikiatra kuxkuxeroa. Dena dela, pozik dago idazmakina utzi behar izanaz. Ondo da, Laura baldin bada sofán utziko du, eta gero, lanaren aitzakian, bere estudioan sartuko da berriro. Ez du haren ahots gozoa berriro entzuteko inongo asmorik. Sukaldera ailegatzerakoan, ordea, figura txiki bat ikusi du atearen bestaldean. Ez da Laura, ez. Jimmy da. Jimmy txikia. Atea ireki dio eta sartzeko keinua egin, eta hala ere mutila atarian gelditu da, ez atzera ez aurrera.

–Egun on, Jimmy –tonu neutroa aukeratu du MJk, mutilaren erreakzioaren zain-edo.

–Egun on, andereño. –Sar zaitetz, mesedez. Jimmy, manaeraz, sukaldean sartu da. Peto urdina darama, eta zapatak, ohi bezala, lokatzez beteta. Pakete bat darama esku artean, eta zerbait esateko mingain puntan, baina ez da ausartzen nonbait.

–Amonak bidali nau, liburuagatik eskerrik asko esan diezazudan –azkenean animatu da mutila.

–A, hori. Ba, ez horregatik. Baina gustatu al zaizu? Ipuina, esan nahi dut.

Baietz egin du mutikoak buruarekin, eta gero bere oin lokaztuei begira gelditu da. Masailak gorrituak ditu, erraz ikusten da ez dela eroso sentitzen.

–Eta hau ekarri dizut –paketetxoa luzatu dio azkenean–. Marrubi tarta. Nire amonak egina. Zuk emandako banana pastelagatik.

–Primeran! –dio MJk alegantzia zintzoaz, paketea hartuz. Zerbait gehiago erantsi beharko luke, baina ez zaio ezer otutzen–. Eta? Gustatu zitzaizun Manda Pandak igeri egin nahi du? –ahoa ireki orduko konturatu da jadanik egina diola ditzosozko itauna.

–Amonak esan dit zuk idatzi duzula. –Bai, hala da. Orduan, gustatu zaizu? –Bai. Gustatu zait azkenean Mandak igeri egiten ikasten duenean –esan du Jimmyk–. Nik ere egiten dut igeri. Pasa den udan irakatsi zidan aitonak.

Hau elkarrizketa itxura hartzen hasi da. Orain haritik tiratu beharra dago, baina sotilki, apur ez dadin.

–Ba, ipuin gehiago ditut. Ipuin ugari idatzi ditut. –Ez daki horrek mutikoa inpresionatuko duen, baina saiatu beharko–. Etor zaitez nirekin.

Dudatsu, Jimmyk emakumeari jarraitu dio erratz-gela edo estudiorantz. MJ apaletan arakutzen ari da. Liburu ugari kartoi kaxetan daude oraindik, New Yorketik ailegatu ziren egunean bezalaxe, beren txandaren zain. Berak idatzitako liburu guztiak ere kaxa batean daude, baina orain ezin du asmatu zeinetan. Bere liburutxoan ale ugari ditu beti etxean, gonbidatuei opari gisa eskaintzeko, edota, besterik gabe, noizean behin begiratu bat emateko. Bere obra ikuskatzeko. Patriciak ez bezala. Patriciak ez ditu inoiz berak idatzitako liburuak berrirakurtzen argitaratu ostean, hortaz, zaila da Patriciaren etxean Patriciaren liburu bat topatzea. MJk gordetzen du baten bat. Elkar ezagutu zuten egunean sinatu zion ale hura, esaterako. Baina ezkutuan gordetzen du. Detaile sentimentalegia Patriciarentzat. Azkenean topatu du kaxa, liburu bat eskuratu eta hautsa kendu dio.

–Hauxe, adibidez: Ezkutatuko gara?

Liburua gainetik begiratzen du, marrazki ugari dituela konprobatzeko-edo. Eta bai, baditu marrazki ugari.

–Beno, banoa. Amona zain dut.

–Ondo da. Nahi duzunean itzuli, beste liburu baten bila edo...

Sukalderantz doaz berriro. MJk atea ireki dio. –Zer moduz dago arrosa? Momentu batez MJk

ez daki Jimmy zertaz ari den.

Gero ohartu da. Jimmyren begietan erruduntasun punttu hori ikusterakoan. Geranio zaharkituaz hitz egiten du. Berak bota zuen geranioaz, alegia.

–Ondo dago, loreontzi berri batean landatu dut –gezurra esaten du MJK–. Ez zaitetz kezkatu. Ez da ezer gertatzen.

Jimmyk, lehenengoz, irribarre zabala eskaini dio. Gero, liburua eskuan, korrika atera da etxetik. Begiradarekin jarraitu dio mutikoaren ibilera azkarrari, bidean txiki egin den arte. Gero sukaldean geratu da zutik, zer egin ez dakiela. Marrubi tartari begira gelditu da. Itxura onekoa, baina ez da gose. Afarirako utziko du, Patricia eta biontzako, Laurak eta Peterrek alde egiten dutenerako.

Eta hala ere, zerbait ospatzeko beharra sentitzen du bere baitan. Ospakizun pribatua, barnekoa. Patriciaren eraginez-edo, martini bat prestatu dezakeela otu zaio, baina berehala ajeaz gogoratu da. Ajearekin martinirik ez, aspaldian egindako promesa hori gogorarazi dio bere buruari. Egongelara doa orduan eta sofán etzan da. Honetarako etorri dira Pennsylvaniara, ezta? Lasai bizitzeko. Igandea sofán botata igarotzeko. Afarian marrubi tarta jateko. Minutuak luze egin zaizkio eta azkenean bere estudiora bueltatu da.

Patricia eta bere lagunak hiru ordu beranduago ailegatu dira. Nekatuta dirudite, batez ere Laurak. Ilea bekokira itsatsita, masailak gorrituta. Orkatila behintzat bere lekuan dago. Azkar agurtu dituzte Peterrek eta emazteak, ez omen dute hirira berandu ailegatu nahi. Itzuliko gara, hau paradisua da, izan dira Lauraren azken hitzak, baina bero madarikatu hau, nola agoantatzen duzue?

–Jatorrak ditun, ezta? –esan dio Patriciak bakarrik gelditu direnean.

Baietz erantzun dio MJK buruarekin. Orain urrun daudela, autopistarako bidean-edo, jatorragoak iruditzen zaizkiolako.

–Eta hik zer egin dun egun osoan?

–Ezer gutxi, Lehoia izan nahi zuen katutxoaren historiari azken ukituak eman.

–Benetan? Bukatu dun? Hau ospatu beharra zegon!

Eta hala egin dute. Ospatu. Patriciak martini batekin –berak ez du inoiz ajerik– eta MJK marrubi tartarekin. Jimmyk ekarri dion marrubi tartarekin.

PARTY GUESTS

INDEX

Foreword – The Hidden Heartbeats of Daily Life

Hesperia, California

Lord and Master

Swimming

Party Guests

Foreword – The Hidden Heartbeats of Daily Life

When I read stories by Katixa Agirre my curiosity awakens, and I feel nervous. What's happening to me? Whether it's a great event or something trivial, the main character will be affected as if there were a fast-moving stream silently flowing beneath the skin of apparent normality, movement which will leave its unavoidable mark by the end. Haven't you realised that things aren't as they seem?

Tucked into a peaceful, carefully organized way of life there are so many frustrations, lies, desires, feelings of insignificance, obsessions; so much manipulation, desire to destroy, narcissism, cowardice, boredom, vulnerability, sensation of insignificance, lack of security, shame, treason, self-flagellation, hurt, guilt, jealousy, egoism...

Agirre shows remarkable ability to reflect humanity in a natural way and with deep psychological insight. She skilfully takes us under her characters' skin, writing fiction which doesn't feel like fiction, offering us brilliant passages which are wholly believable within those daily routines. When painting her characters' portraits and describing the logic behind their actions it's as if she has a hidden camera, a camera which neither hides the characters' weaknesses nor judges them.

The characters speak to themselves all the time; the conversations are linked in their minds; or they are hammered by insistent questions, forced to take the continual assessment evaluations which life puts them through. We see many types of emotion, specimens from a never-ceasing beehive.

However, there is no space for sentimentalism in these stories. The dramas (these texts are made up of substantial dramatic components), whether in the first person or the third, are put to us from close by, in the way an impartial chronicler might. To such an extent that the strong endings leave it up to the reader to answer the questions which have sprung up while reading each story. In fact, openness and ambiguity are two of the writer's main characteristics, and the reader has to take some time for reflection before moving on to the following story. How do we know when life is going to deceive us?

Agirre constructs together fast-moving texts, using short, precise sentences. The narratives seem to go forward by their own, moved along by the inertia of their own style.

We see physical spaces and sceneries – whether a few square metres or thousands of kilometres – as extensions of the characters' personalities, like a pot in which each of their circumstance's stocks are cooked. To put it another way, although few details of the physical areas in which relationships and interactions take place are painted for us, the atmospheres created are both complete and attractive.

And, just once in a while, with a touch of irony, there's laughter at the hidden heartbeats of daily life.

Miren Agur Meabe
Bilbao, January, 2020

Hesperia, California

Travelling together was the best way to save money. That was why we got into a car with a couple we hardly knew.

I think that by then things weren't going well between H. and me, although we hadn't realised it. That was why we sought out other people's company, thinking noise from outside would cover up the noise between us. That was why we got into a car with a couple we hardly knew. If we had realised, perhaps I would have spent the summer alone. It might have been a moment when a short break could have sorted something out. A summer break. At the end of the day, it was only three months, and I was going to work at the university in Reno. But H. signed up too, his company having been one of the first victims of the crisis – in fact, a victim of it two years before the crisis had started, which is quite something.

